

[a]
aztiker
Jendarte-ikerketa aplikatuak



**ELGOIBARKO IZARRA
ELGOIBARTARREK IRUDIKATUA:**

**HAUSNARKETA PARTEKATURAKO
TAILERRAK, 2011**

BEZEROA:



ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA

Elgoibarko Izarra Elgoibartarrek irudikatua esku-hartze programaren emaitzak biltzen ditu eskuartean duzuen txostenak. Herrigintzaren ikuspegitik eginiko lana da eta partaideak Elgoibarko Izarrarekiko duten gertutasun-urruntasunaren arabera izan dira hautatuak. **Lan kualitatiboa** izanik, emaitzak ezin dira kuantitatiboki erabili, bai ordea diskurtso ezberdinen kokapen gisa. Txosten honetan aztergai izan diren eremuez, hots, Elgoibarko Euskara eta Elgoibarko Izarraz, aipaturiko perfila betetzen duten **herritarrengan nagusitzen diren diskurtsoak** aurkituko dituzue hurrengo lerroetan. Beraz, Elgoibarko herrigintzaren errealitatean existitzen diren **diskurtso esanguratsuak** biltzen ditu txostenak.




AURKIBIDEA

SARRERA	5
0 METODOLOGIA OHARRAK.....	8
0.1 Parte hartzean oinarrituriko METODOLOGIA	8
0.2 Hausnarketa partekaturako tailerren XEDE TALDEAK	9
0.3 HIZKUNTZARI buruzko oharrak.....	10
0.4 Lan dinamikien eta edukien AZALPENA	10
0.5 Esku-Hartzea garatzeko ESKEMA OROKORRA	13
1 HAUSNARKETA TAILERREN EMAITZA: ELGOIBARKO HERRITARREN IRITZI ETA HAUTEMATEAK	14
1.1 DIAGNOSIA: Elgoibarko herritarren hautemate, jarrera eta jokaerak.....	15
1.1.1 EUSKARA ELGOIBARREN	15
1.1.2 ELGOIBARKO IZARRA ELKARTEA	16
1.2 AURRERA BEGIRA: euskara Elgoibarren eta Elgoibarko Izarra elkarte etorkizunera begira	19
1.2.1 EUSKARA ELGOIBARREN.	19
1.2.2 ELGOIBARKO IZARRA ELKARTEA.	19
1.3 BALORAZIOA: Elgoibarko Izarra elkartearen eskaintzaren balorazioa.....	22
2 PROZESUAREN ONDORIO NAGUSIAK	24
I. ERANSKINA: Hausnarketa prozesuan parte hartutakoen perfila	31
II. ERANSKINA: Eginiko 3 tailerren memoriak	33
2011-03-2, LEHEN SAIOAREN MEMORIA.....	34
2011-03-16, BILERAREN MEMORIA	41
2011-03-30, BILERAREN MEMORIA	45

**ELGOIBARKO IZARRA
ELGOIBARTARREK IRUDIKATUA:
HAUSNARKETA PARTEKATURAKO
TAILERRAK, 2011**

{ SARRERA }

Elgoibarko Izarra Elgoibartarrek irudikatua: hausnarketa partekaturako tailerrak, 2011 egitasmoaren emaitzak biltzen dira orriotan. **Topaguneak, Euskara Elkarten Federazioak** lagunduta, **Elgoibarko Izarra elkartearen** eskariz, Elgoibarko herritarrek Elgoibarren euskarak bizi duen egoerari eta Elgoibarko Izarra elkarteari buruz dituzten hautemate, jarrera eta jokaerak biltzeko prozesua egin du **Aztiker** soziologia ikerguneak.



50.urteurrenaren atarian dagoen Elgoibarko Izarra elkarteak etorkizunera begirako gogoeta-prozesua aurki abiatuko du. Horretarako, **Elgoibarko herritarren hautemate, iritzi, jarrera eta jokaerak ezagutzea izan da xedea**, Elgoibarko Izarra elkartearen (eta euskararen) auto- diagnosi eta erronken baitan antolatuta, beti ere, etorkizunari begirako klabeetan.

Elgoibarko Izarra elkarteari, 50 urteetako ibilbidearen ondoren, egindako lanaren balorazioa egiteko, etorkizunaren gaineko gogoeta-prozesua abiatzeko eta 50.urteurrena ospatzeko garaia iritsi zaiola ondorioztatu dute elkarteko arduradunek. Lan horretan sartu aurretik, beharrezkotzat jo dute **elgoibartarrekin hausnartzea Elgoibarko Izarrak izan behar duen misioa zein lan jarduera** eta **herritarren hausnarketa elkartearen barne prozesurako oinarria** izatea. Horiexek dira, hain zuzen ere, esku-hartze programa honen helburu nagusiak.

Hausnarketa partekaturako tailerren bidez, herritarren hautemate, iritzi eta jokaerak Elgoibarko Izarra elkartera gerturatu nahi izan dira, betiere bi noranzko dituen errepidean.

Elgoibarko Izarra Elkarteak 1963an sortu zen, **Ikastola laguntzeko eta Elgoibarren euskara zein euskal kultura sustatzeko**. Lehen urteetan hamaika egitasmo sortu eta arrakastaz garatu ziren. 1990. urtean, aldiz, Elkarteak **desagertzeko zorian** egon zen, pare bat lagunek egitasmoarekin jarraitu eta Euskara elkartearen mugimenduari bat egin behar zela erabaki zuten arte. Urte hartatik aurrera, **bigarren etapa** bati hasiera eman zitzaien eta proiektu berriak martxan jarri ziren.



Lehen ere esan bezala, 50 urteetako ibilbide gora-beheretsu, baina oparoaren ondoren, aurrera begirako erronkak zehazteko garaia iritsi zaio Elgoibarko Izarra Elkarteari.


Hasierako helburuak (euskara eta euskal kultura Elgoibarren sustatzea) mantentzen badira ere, jendarte ereduak, kolektibitatearen ulermena edota euskararekiko jarrera, **aldatzen ari diren neurrian**, herritarrengana ailegatzeko **eredua, modua eta eskaintza garai berrietara egokitu behar da**.

Hausnarketa partekaturako tailerren bidez, herritarrak euren hautemate, iritzi, jarrera eta jokaerak adierazi dituzte. Txosten honen bidez, herritarren hitzak Elgoibarko Izarra elkartearen arduradunen esku uzten ditugu, aurrera begira garatuko den gogoeta-prozesurako tresna baliagarria izan dadin.

Lan honi ekiteko Elgoibarko Izarra Elkarteak berak deialdi zuzena egin zuen, Aztiker ikerguneko teknikarekin adosturiko irizpideen arabera (*xede taldeak atalean zehaztasunak daude*). Hortaz, giza-baliabideen koordinazioa eta informazio trukaketa Elgoibarko Izarra elkartearen esku egon da. Elgoibarreko 16 herritarrek deialdiari erantzun eta hiru lan tailerretan parte hartu dute. **Hiru bilerako lan dinamika** jarraitu dute eta bileren iraupenaren batz bestekoa 2,2 ordukoa izan da. Ondorioz, eta batz beste topatu ditugun Elgoibarko **herritarrak askotarikoak** izan direlako, **informazio ugaria eta oparoa bildu dugu**.

- ✓ Lehen saioa: 2011.eko martxoak 2, Elgoibarko Kultur Etxean
- ✓ Bigarren saioa: 2011.eko martxoak 16, Elgoibarko Kultur Etxean
- ✓ Hirugarren saioa: 2011.eko martxoak 30, Elgoibarko Kultur Etxean

Eskuarteran duzuen Txostena **lau zati nagusitan** banatu dugu:



- ✓ Sarrera eta Metodologia oharrak
- ✓ Lehen atalean, **hausnarketa partekaturako tailerren emaitza** biltzen da, Elgoibarko herritarrek dituzten iritzi eta hautemateetatik abiatuz egindako **ekarpenak**, alegia. Ekarpenak hiru zatitan bereizi dira: batetik, **Elgoibarko Izarra eta euskararen (auto)diagnosia** osatzeko jasotako ekarpenak; bestetik, **Elgoibarko Izarrak aurrera begira dituen erronkak** formulatu dira; eta, azkenik, **orain arte Elgoibarko Izarrak egindako eskaintzaren balorazioa** egin da.
- ✓ Bigarreanean, hausnarketa partekaturako tailerretan egin diren **lan dinamika guztietan identifikaturiko elementu komunak** jaso dira, hots, esku-hartze prozesuan zehar ondorioztatu diren **gako nagusiak**.
- ✓ Hirugarren eta azken atalean, **eranskinak** txertatu dira, egindako hiru saioen memoria osoak, hain zuzen ere.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiegu partaide izan diren elgoibartarrei. Proposaturiko aztergai eta lan dinamikekiko erantzukizuna agertu dute eta sortutako edukia oso baliagarria izan da. Elgoibarko herritarrak dira lan honen benetako izarrak. Beraz, eskerrak ematearekin batera, **egindako lana balioan jarri nahi dugu** eta gure begirune osoa merezi dutela adierazi. Amaitzeko, egindako lan eskerarengatik gure zorionik eta eskerrik zintzoena.

{ 0 METODOLOGIA OHARRAK }

0.1 Parte hartzean oinarrituriko METODOLOGIA

Lan dinamikak **norbanakoaren hautematea, iritzia, jarrera eta jokaera plazaratu eta partaideen artean konpartitzeko** egokitu dira, **talde ikuspegia eta ekarpen zehatzak sortzera begira**. Beraz, txosten honetan biltzen diren emaitzek talde edukiak jasotzen badituzte ere, partaide bakoitzaren ekarpena izan da abiapuntua.

Esku-hartze prozesu honetan norbanakoek osatutako lan-taldea izan da oinarritzko gunea. Norbanako guztien iritzi zein hautemateetatik sortzen da talde ikuspegia; era berean, talde ikuspegiak bermatzen du norbanako guztien iritzi zein hautemateak kontutan hartuak izatea. Norbanakoaren eta kolektiboaren arteko oreka lan dinamikaren erritmoaren arabera egokitzuz joan da.

Hausnarketa partekaturako **tailer guztietan honako eskema orokorra** landu da:

- ✓ **OSOKO BILKURA.** Prozesu osoaren nahiz eguneko saioaren kokapena (lan dinamikak, iraupena...) egiteko baliatu da.
- ✓ **LAN TALDEA, oinarritzko tresna:**
 - *Banakako ekarpenak.* Norbanakoaren hautematea, iritzia edo jarrera jasotzen dela bermatzeko bidea izan da. Iritzi emate arina eskatzen duen lan dinamikatan egin da, gaian kokatzeko. Partaide guztiek bere ekarpena egin dute saio guztietan.
 - *Binakako ekarpenak.* Norbere ekarpena aintzat hartua izateko bidea izan da, bikotearen ekarpenari bide ematen zaion bitartean. Hartu emanean oinarrituriko lan dinamikatan garatu da.
 - *Talde eztabaida eta adostasuna.* Maila pertsonaletik eratorritako edukietatik, taldearekin konpartitu eta iritzi ezberdinen isla izan da. Era beran, hautemate, iritzi eta jarrera ezberdinak daudela ohartzeko eta onartzeko lan dinamika izan da.
- ✓ **OSOKO BILKURA.** Lan taldeetan sortutako edukia partaide guztiekin konpartitu, komentarioak egiteko eta ekarpenak bideratzeko gunea izan da. Era berean, eztabaidak gauzatzeko gune osagarria izan da. Lan saio guztiak Osoko Bilkuran amaitu dira, eguneko saioaren errepassoa eta hurrengoaren kokapen azkarra eginez.



Era berean, hausnarketa partekaturako tailerrak honako hiru printzipioren baitan antolatu, egituratu eta burutu dira:


- ✓ **Berdintasuna.** Egon daitezkeen hautemate nahiz iritzi guztiak berdintasunean adierazi, landu eta kontutan hartuak izatea.
- ✓ **Kultura politiko berria.** Hausnarketa, elkarrizketa eta eztabaida eskematan trebatzea, irabazle-galtzaile eskemak alboratuz.
- ✓ **Errespetua eta enpatia.** Une oro partaideen arteko zein gaiarekiko errespetuzko hizkuntza, portaera eta jarrerak erabili dira, ariketak uneoro egin direlarik "bestearen" portaerak eta jarrerak ulertu eta kokatzeko.

0.2 Hausnarketa partekaturako tailerren XEDE TALDEAK

Lan honi ekiteko, Elgoibarko Izarra elkarteak deialdi zuzena bideratu eta aurrez aurreko hartu emanak egin ditu 2011.urteko otsailean. Hainbat elgoibartarrei egin zitzaion deialdia jarraian agertzen diren xede taldeak eta bestelako irizpide zehatzak kontutan hartuz (adin tarte, genero oreka, elkartearekiko posizioa eta bizipena...). Azkenean, 16 pertsona izan dira tailerretan parte hartzeko gonbitari baiezkoa eman diotenak.

Egitasmoari atxikitako helburuak, ezaugarriak eta mugak kontutan hartuz, Aztiker soziologia ikerguneak hiru xede talde proposatu zituen partaide gisa eta onartuak izan dira. Beraz, **partaide zehatzek osatu dute xede taldea, hiru kategorien arabera:**

- ✓ **Elgoibarko Izarra elkarteo programa ezberdinetan partaide** diren edota izan diren pertsonak. Elkartea barrutik eta kanpotik ezagutu izan dutenak.
- ✓ **Elgoibarko Izarra elkarteo programen edota ekitaldien kontsumitzaile** diren edota izan diren pertsonak. Elkartea kanpotik ezagutu izan dutenak.
- ✓ **Elgoibarko herrigintzan dihardutenak, eta Elgoibarko Izarra Elkartearen existitzen denik badakitenak**, baina ez direnak ez partaide ezta kontsumitzaile ere. Soilik oso puntualki, edo inguruko bidez, jakiten dutenak elkartearen berri.



Partaideei soilik deialdi zuzena egin zaie. Arrazoia da, egitasmoa ez dela ekitaldi soila, baizik eta 3 saioetarako konpromisoa eskatzen duen lan dinamika.

Hizkuntzari dagokionez, partaide guztiak euskaldunak izan dira. Horren barruan, ahalegin berezia egin da pertsona euskaldun berriak kokatzeko eta euskalduntzen ari diren bi pertsonen partaidetza bermatu da.

0.3 HIZKUNTZARI buruzko oharrak

Aztiker Soziologia Ikerguneak Elgoibarko Izarra elkarteko arduradunekin izan duen **harremana euskaraz izan da**, bai ahozko harremana, zein idatzizko harremana ere bai.

Tailerrak egiteko adostu diren hizkuntza irizpideen xedea, hizkuntza partehartzerako oztopo ez bilakatzea eta partehartzea sustatzeko lagungarri bihurtzea izan da. Partaide diren guztiak euskara ezagutu arren, erabilera maila anitzekoak direla kontutan hartuz, esku-hartze programa errespetu eta berdintasun printzipioetan garatu da, ezinbestean. Bi hizkuntza erabiltzeko aukeraren aurrean, tailerrak hizkuntza bakarrean garatzea (euskaraz) eta materiala hizkuntza bakarrean sortzea adostu da partehartzaileekin. Zentzu honetan, **prozesua euskaraz garatu da bere osotasunean**.


Tailerren emaitzen dokumentazioa (saioen memoriak eta txostena), **hizkuntza bakarrean jaso eta entregatu da Elgoibarko Izarra elkarteari (euskaraz)**.

0.4 Lan dinamiken eta edukien AZALPENA

Sortutako egitasmoaren diseinuaren arabera, lan dinamikak, hiru hitzorduren arabera egin dira:

- ✓ 1.hitzordua: 2 ordu eta 30 minutuko iraupena
- ✓ 2.hitzordua: 2 ordu eta 30 minutuko iraupena
- ✓ 3.hitzordua: 2 orduko iraupena

Esku-hartze prozesuaren garapenean 4 lan dinamika egin dira, jarraian azaltzen diren ariketen baitan:



- **1.-LAN DINAMIKA, AUTO DIAGNOSIA:**ELGOIBARKO IZARRA ETA EUSKARA (edukia sortzeko ariketa= hautemate eta iritziak oinarri, talde ikuspegia osatu)

Lehenik eta behin, egoeraren azterketa egin da; hau da, auto-diagnosia osatu da. Horretarako, euskarak Elgoibarren duen egoera aztertu da honako **hiru**

ardatzen arabera: ezagutza, erabilera eta motibazioa. Ondoren, Elgoibarko Izarra elkartearen auto-diagnosia egin da, parte hartzaile bakoitzak bere iritzia zein hautematean oinarrituz, honako galderari erantzunez: *Zer da zuretzat Elgoibarko Izarra? Zein iritzia, hautemate duzu egungo jardueraz?* Amaitzeko, partaideek Elgoibarko Izarraz duten ezagutza aztertu da. Horretarako, elkartearen eskaintzaz ezagutzen dutena eta bakoitzaren alde positiboak eta negatiboak identifikatu dira.

LAN TRESNAK:

- Fitxa binakako lanketarako, euskararen indarguneak/ahuleziak hiru ardatzekiko: ezagutza, erabilera motibazioa
- Papelegrafoa, talde lanerako.
- Markagailuak.

URRATSAK:

1. Aurrez zehazturiko bi lan talde osatu, talde ariketa.
2. Binaka jarrita, fitxa bete.
3. Papelegrafoan komunean jarri, talde ikuspegia osatu.

➤ 2.-LAN DINAMIKA. ELGOIBARKO IZARRA ETA EUSKARAREN ERRONKAK IDENTIFIKATU

(edukia sortzeko ariketa = hautemate eta iritzietatik abiatuz, talde ikuspegia osatu)

Lan dinamika honen xedea Elgoibarren euskarak eta Elgoibarko Izarra elkarteak dituen erronkak identifikatzea izan da. Orokortasunetik abiatuz (euskara Elgoibarren) zehatzerako (Elgoibarko Izarra elkartearen) bidea egin da.

Euskarak Elgoibarren duen egoeraren datu estatistikoak aurkeztu ondoren, partehartzaileak 2020.urtera begira jarri dira eta honako galderari erantzun diote: *nolako euskararen egoera topatu nahi duzu Elgoibarren?*

Amaitzeko, Elgoibarko Izarra elkartearen erronkak identifikatu dira. Oraingoan 2016.urtera begira jarri dira eta honako bi galderak erantzun dituzte: *Nolako elkarte behar du Elgoibarrek? Zein izan behar du elkartearen jarduna?*

LAN TRESNAK:

- Power point aurkezpena (Elgoibarko euskararen datu estatistikoak)
- Fitxa lau/bosnakako lanketarako: Irudikatu Elgoibar 2020.urtean, nolako euskararen egoera topatu nahi duzu?
- Papelegrafoa, talde lanerako
- Fitxa lan talde lanerako: Irudikatu Elgoibar 2016.urtean, nolako elkarte behar du Elgoibarrek? Zein izan behar du elkartearen jarduna?
- Talde lanketarako, papelegrafoa.
- Markagailuak.

URRATSAK:

0. Hiru lan talde osatu, ausaz
1. Hiru lan taldetan jarrita, lau/bosnaka fitxa bete.
2. Osoko Bilkuran eta papelegrafoan, emaitzak komunean jarri. Talde ikuspegia osatu.
3. Bi lan talde osatu, ausaz.

4. Bi lan taldetan jarrita, fitxa bete.
5. Osoko Bilkuran eta papelografoan, emaitzak komunean jarri. Talde ikuspegia osatu.

➤ **3.-LAN DINAMIKA. ELGOIBARKO IZARRA: ERRONKAK ZEHAZTU ETA BAKOITZAREN GAINEKO LEHEN URRATSAK IDENTIFIKATU**

(sortutako edukian oinarrituz, edukia sortzeko ariketa = erronka bakoitzeko lan lerroak eta subjektu arduradunak iradokitzea)

Epe ertainean euskarak Elgoibarren eta Elgoibarko Izarrak dituen erronkak identifikatuta, elkartearen erronkatan sakondu da. Horretarako, lehenik eta behin erronkak zehaztu egin dira (aurreko dinamikan sorturiko edukitik abiatuz) eta erronkak aurrera ateratzeko lehen urratsak identifikatu dira.

LAN TRESNAK:

- Orri itsaskorrak, banakako lanketarako
- Papelografoa, emaitzak komunean jartzeko. Talde ikuspegia osatu.
- Fitxa, banakako hausnarketarako (partehartzaileek 2. lan dinamikan sorturiko edukia biltzen da fitxan)
- Papelografoa, emaitzak komunean jartzeko
- Markagailuak

URRATSAK:

1. Banaka jarrita, orri itsaskorra bete honako galderari erantzunez: zertarako Elgoibarko Izarra elkartea?
2. Osoko Bilkuran papelografoan, emaitzak komunean jarri papelografoan.
3. Partehartzaileek 2. lan dinamikan sortutako edukian oinarrituz, Osoko Bilkuran eta ahots altuan, erronkak berretsi edo birkokatu dira eta sailkatu gabe daudenak kokatu dira.
4. 3 lan talde sortu adinaren arabera (gazteak, helduak, adinekoak).
5. Lan talde bakoitza bi erronken gaineko lanketa egin (lehen urratsak eta proposamenak identifikatu).
6. Osoko Bilkuran eta ahots altuan, emaitzak komunean jarri eta parte hartzaile guztien artean osatu.

➤ **4.-LAN DINAMIKA. ELGOIBARKO IZARRA: EGUNEKO ZERBITZUEN BALORAZIOA ETA ZEHAZTUTAKO ERRONKEKIN HARREMANEAN JARRI**

(sortutako edukian oinarrituz, edukia sortzeko ariketa= elkartearen eskaintzaren balorazioa, aurrez zehazturiko erronkekin harremanean)

Amaitzeko, egun (edo duela gutxi arte) Elgoibarko Izarra elkarteak eskaintzen dituen zerbitzu, ekimen nahiz ekitaldiak baloratu dira, partehartzaileek aurrez zehazturiko erronkekin harremanean jarritz.


LAN TRESNAK:

- Elgoibarko Izarra elkartearen eskaintzaren deskribapen fitxa (baloraziorik gabekoa), banakako hausnarketarako eta guztien ezagutza berdina izan dadin.
- Papelografoa, emaitzak komunean jartzeko
- Gometxak, eskaintzaren banakako baloraziorako

URRATSAK:

1. Osoko Bilkuran, Elgoibarko Izarra elkartearen eskaintza zehazturiko erronkekin harremanetan jarri (txandaren bidez eta ahots altuan)
2. Banaka eta gometxak erabiliz, elkartearen eskaintza bakoitzaren balorazioa egin. Kolore bakoitzari adiera bat eman zaio:
 - **Gorria:** desagertu beharreko ekimen, zerbitzu edo ekitaldia.
 - **Berdea:** mantendu beharrezko eskaintza.
 - **Horia:** egokitu beharreko eskaintza.
3. Osoko Bilkuran, komentarioak egin dira.

0.5 Esku-Hartzea garatzeko ESKEMA OROKORRA



1 HAUSNARKETA TAILERREN EMAITZA: ELGOIBARKO HERRITARREN IRITZI ETA HAUTEMATEAK

Elgoibarko Izarra Elgoibartarrek irudikatua: hausnarketa partekaturako tailerrak, 2011 egitasmoaren xedea etorkizunera begira Elgoibarko Izarra elkarteak dituen erronkak zehaztea da, beti ere Elgoibarko herritarren iritzi eta hautemateetatik abiatuz.

Prozesu partehartzailea **orokortasunetik zehatzerako norabidean garatu** da, lehenik eta behin, euskarak Elgoibarren dituen erronkak zehaztuz eta ondoren, Elgoibarko Izarra elkarteak horretan guztian duen egitekoa (erronka) definituz.

Era beran, txosten honetan aurkituko dituzuen emaitzak sortutako edukiaren arabera eta eragin-eremuka sailkatu dira:

- **AUTO-DIAGNOSIA: Elgoibarko herritarren hautemate, jarrera eta jokaerak**

Elgoibarko herritarrek dituzten hautemate, jarrera eta jokaeretatik abiatuz, auto-diagnosia egin da. Zehazki, bi eremu landu dira, orokortasunetik zehatzerako bidean: euskarak Elgoibarren duen egoera eta Elgoibarko Izarra elkartearen ezagutza, hurrenez hurren.

- **AURRERA BEGIRA: Elgoibarko Izarra elkarte etorkizunera begira**

Egoeraren kokapena egin ondoren, aurrera begira jarri, eta Etorkizun hurbilean euskarak Elgoibarren eta Elgoibarko Izarra elkarteak izango dituen erronkak identifikatu dira. Erronken inguruko lanketa sakona izan da, lehen une batean erronkak iradoki ondoren, berauek berraztertu, birkokatu eta aurrera ateratzeko lehen urratsak proposatu baitira.

- **ORAIN ARTEKOA: Elgoibarko Izarra Elkartearen eskaintzaren balorazioa.**

Aurrera begirako ibilbidea zertzelatu ondoren, orain artekoa baloratu da. Zehazturiko erronkekin harremanetan jarriz, Elgoibarko Izarra elkartearen egungo eskaintza baloratu da, herritarren iritziak oinarri, elkartearen eskaintza mantendu, moldatu edo desagertu beharko litzatekeen jaso.

Lan dinamika nahiz emaitzak xeheago eskuratzeko, saio bakoitzaren memoriak eranskin modura aurkezten dira txosten honen amaieran.

Lan dinamika guztietan norbanakoaren hausnarketa, iritzi edo ekarpena izan da abiapuntua eta talde ikuspegia osatzeko bermea. Zentzu honetan, egin diren lan dinamika guztietan partehartzea sustatu da, berdintasun printzipioak betetze aldera. Horren oinarrian, talde iritziaren eta proposamenen lanketa dago, onarpenaren bermea norbanakoaren ekarpenetan oinarritu delarik.

Atal honetan partaide guztiek identifikatutako elementuak aurkezten ditugu, egindako ekarpenak bere horretan jaso ditugu. Beraz, **jarraian Elgoibarko herritarrek egindako ekarpen guztiak** azaltzen dira.

1.1 DIAGNOSIA: Elgoibarko herritarren hautemate, jarrera eta jokaerak

1.1.1 EUSKARA ELGOIBARREN

➤ Euskara Elgoibarren: iritzi eta hautemateak

Iritzi eta hautemateetatik abiatuz, Elgoibarko euskararen egoera zertzelatu dute partehartzaileek ezagutza, erabilera eta motibazioari dagokionean. Jarraian, emaitzak aurkezten dira:

	INDARGUNEAK	AHULEZIAK
EUSKARAREN EZAGUTZA	<ul style="list-style-type: none"> - Eskola guztietan D eredia, haurrek euskaraz jasotzen dute hezkuntza - Era berean, gazte guztiek ezagutzen dute. - Enpresek ikastaroak eskaintzen dituzte 	<ul style="list-style-type: none"> - Etorkin "nagusitxoek" ez dute euskara ikasten - Euskaldun berriei ez zaizkie laguntzak eskaintzen - Lan orduetatik kanpo eta orduak errekuperatu behar. - Elebakarrak, erdaldun elebakarrak dira. - Elebidun pasiboak, 50 urtetik gorakoak bereziki. - Taldean, erdarak irabazten du - Elgoibarko euskalkia ez da transmititu belaunaldi berriei. Euskara batuak ez du pizgarririk
EUSKARAREN ERABILERA	<ul style="list-style-type: none"> - Helduengandik transmisioa egon da - Herriko hizkera mantendu da - Elgoibarko Izarrak antolatzen dituen ekintzatan erabilera bultzatzen da. - Guraso izaterakoan, erabilera handitzen da 	<ul style="list-style-type: none"> - Orokorrean, kalean ez da entzuten (tabernatan, gazte eta nerabeek...) - Ez da nahikoa erabiltzaile kopurua - Herritarrek ezagutu, baina ez dute erabiltzen (erabilera ezagutzaren azpitik dago) - Kalitate exkaxekoa: erdarakada asko sartu. - Elgoibarren euskara ez da beharrezkoa, erdaraz bizi daiteke (pertzepzioa) - Gurasoek erdarara pasatzeko joera. Hurrei euskaraz hitz egin arren, eredia erdalduna bihurtzen da.

EUSKARAREKIKO MOTIBAZIOA	<ul style="list-style-type: none"> - BARREN aldizkaria - Ekonomia-lana (euskarara gerturatzeko alde pragmatikoa) - Haurrekin harremantzako erabili (belaunaldi transmisioa) - Esparru berriak sortu dira euskararen bultzadarako (gaztelekua, ludoteka...) - Herritar batzuk lan horretan jardutea 	<ul style="list-style-type: none"> - Teknologia berriak (gehienak erdarazkoak dira) euskararen kaltetan. Komunikabide euskaldun gabezia - Euskara ez dago modan, betekizun gisara hartua dago. - Euskararekiko kontzientzia falta. Euskararen militantzia zatarra da. Ez dago herri kontzientziarik. - Adin arteko hartu-eman falta - Etorrinen motibaziorako bitarteko falta - Nerabe eta gazteek erabaki behar eta, normalean, erdara erabakitzen dute - Elkarte kultural gutxi dago.
--------------------------	---	--

Oro har, **euskararen gabeziarik handiena erabileraren esparruan kokatu** da, motibazioaren aurretik. Herriko derrigorrezko irakaskuntza eskaintza D eredukoa izanik, belaunaldi berrien ezagutza bermatua dago, ez ordea honen jarraipena (bereziki gazte eta gurasoengan etena dago) edota eguneroko erabilera.

1.1.2 ELGOIBARKO IZARRA ELKARTEA

➤ **Elgoibarko Izarra elkarte: iritzi eta hautemateak**

Kasu honetan, Elgoibarko Izarra elkarte kokatzea izan da partehartzaileen egitekoa, euren bat bateko iritzi eta hautemateak oinarri harturik. Jarraian agertzen dira sorturiko emaitzak:

ELGOIBARKO IZARRA: IRITZI ETA HAUTEMATEAK
<p><i>Euskara Elkarte:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> - Euskararen erreferentzia - Euskalduna - Euskara - Euskalgintza - Euskara elkarte - Euskara eta kultur elkarte - Euskararen alde <p><i>Euskararen sustatzailea (erabilera) Elgoibarren:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> - Erabilera - Euskara indartzen duen elkarte - Euskaldunen gunea indartzeko elkarte - Euskararen erabilpenaren bultzatzaile - Euskararen ikurra - Euskararen gunea (arnas gunea) - Herrian euskararen zutabe - Elgoibarko Izarrarik gabe, euskarak indar gutxi edukiko luke - Elgoibarren euskara bultzatu

Kultur Elkartea:

- Euskal kultur elkartea
- Euskal kultura Elgoibarren sustatu
- Kultura

Euskarazko eskaintza egiten duen elkartea:

- Euskaraz lan ezberdinak martxan dituen
- Barren
- Aisialdia
- Elgoibarko Izarra eta ekintza, umeekin eta gazteekin lotuta dago, euskararen alde
- Elgoibarko umeentzako mugimendu bat
- Herria mugitzen du

Eraginkortasunari dagokionean (lana - etekina):

- Ezezaguna
- Ezkutukoa
- Ez ezaguna
- Elkarre ezagun ezezaguna
- Euskararen ghettoa
- Inplikazioa zabaldu beharra
- Ezkutuko lana
- Militantzia

Elgoibarko Izarra Elkarrearen izaerari dagozkionak:

- Herritarra
- Lan taldea
- Partaidetza
- Harremanak
- Garrantzitsua
- Elkarre indartsu eta aktiboa
- Ekintzailea

Partehartzaile gehienek Elgoibarko Izarra **euskara eta euskal kulturarekin harremanetan** jarri dute, bi eremu hauetan eskaintza egiten duen elkarre gisa. Aipatzekoa da, ordea, partaideek atzeman izana, **Elkarreak egiten duen lan eskergaren eta lortzen den emaitzaren arteko harremana desorekatua** dela. Emaitzak ez dira egiten den lanaren parekoak. Ondorioz, askok dute eraginkorra ez izatearen sentsazioa. Adin tarteari dagokionez, ekintza solte batzuk salbu, haur eta nerabeei lotutako kultur eskaintzarekin lotzen da batez ere elkarre. Azkenik esan euskara eta kultura subjektuarekin lotzen direla, eta subjektuari atxikitzen zaizkiola euskara eta kultura ardurak, hots, batez ere euskara elkarrearekin lotzen dela.

➤ **Elgoibarko Izarra elkarrearen ezagutza:**

Elgoibarko Izarra elkarrearen ezagutzan sakonduz, elkarreak egiten duen eskaintzaren (ekimenak, zerbitzuak, ekitaldiak...) alde positibo eta negatiboak identifikatu dira. Hona hemen, partehartzaileek sorturiko emaitzak:

EKIMENAK, EKITALDIAK, ZERBITZUAK	ALDE POSITIBOAK	ALDE NEGATIBOAK
BARREN	<ul style="list-style-type: none"> - Euskara hutsezkoa izatea. - Herriko berri ematen du/ ezagutza bultzatzen du - Gertukoa da 	<ul style="list-style-type: none"> - Kulturaren kaltetan, kirolari tarte asko eskaintzen zaio. - Gabezia ekonomikoak
GUREAN BAI	<ul style="list-style-type: none"> - Ostalaritza eta merkataritza euskalduntzeko bitartekoak eskaintzen zituen. 	<ul style="list-style-type: none"> - Desagertu izana - Udalak dirulaguntzak ez eman izana. - "Letrero" hutsa askotan/
ATXUTXIMAIIKA	<ul style="list-style-type: none"> - Haurrei euskara erabiltzeko aukera eskaintzea eskolaz kanpo. 	<ul style="list-style-type: none"> - Ez da "eskaera" guztira iristen - Gurasoek delegatu egiten dute parte hartu ordez.
KIRIBIL	<ul style="list-style-type: none"> - Umeak herriko plazan biltzen ditu - Guraso-haur transmisioa bermatzen da. 	<ul style="list-style-type: none"> - Gainbeheran dago, eduki eta baliabide aldetik. - Gurasoak ez dute parte hartzen - Lana-etekina ez da parekoa
KUADRILLETEGI	<ul style="list-style-type: none"> - Euskara lagunartean erabiltzeko zerbitzua izatea 	<ul style="list-style-type: none"> - Desagertu izana
BERBAZULO	<ul style="list-style-type: none"> - Etorkinentzat euskara errefortzua eskaini 	<ul style="list-style-type: none"> - Ezezaguna da
TERTULIAK	<ul style="list-style-type: none"> - Harremanak euskaraz sustatzen ditu. 	<ul style="list-style-type: none"> - Euskaldun zaharren eskasia - Denbora gutxi, baina ez da gehiago nahi
LURRA ETA HIZKUNTZA	<ul style="list-style-type: none"> - Jendeak beretik eman du 	<ul style="list-style-type: none"> - Udalak proiektua ez onartu izana. Ondorioz, autogestionatu egin behar da.
UDAL EKIPAMENDUAK (Gaztelekua eta Ludoteka)	<ul style="list-style-type: none"> - Herriko euskarazko aisialdi eskaintza Elkarteak bideratzea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Ekipamenduak herritik kanpo kokatuak egotea. - Udalaren jabetza eta bere menpeko kudeaketa edukitzea. - Partehartzaile ez direnentzat, ezezaguna
EKINTZA KULTURALAK	<ul style="list-style-type: none"> - Ohiturak mantentzeko baliagarria. - Ekintza gustagarriak 	<ul style="list-style-type: none"> - Gutxi antolatzen dira.
JOLASIAN	<ul style="list-style-type: none"> - Eskolako jolas orduetan, haurrak euskaraz jolasten irakatsi eta sustatzen da. 	
BERTSO JAIALDIA	<ul style="list-style-type: none"> - Jende anitza biltzen du 	<ul style="list-style-type: none"> - Espazioa txiki gelditu da
MINTZA LAGUNA	<ul style="list-style-type: none"> - Oso positiboa: jendea ezagutu, harremana egin, erraza da, inplikazio gutxi behar. - Jendeak kontzientzia hartzeko baliagarria da 	<ul style="list-style-type: none"> - Interes gutxi dago (partehartzaile gutxi)
AUTOBUSAK EUSKAL FESTETARA (KMK, Herri Urrats...)		<ul style="list-style-type: none"> - Helburua ez da askotan euskara, festa egitea baizik.
OROKORREAN	<ul style="list-style-type: none"> - Euskararen erabilera eta motibazioa sustatzen du - Euskal giroa pizten du - Euskal kontzientzia pizteko lagungarria. 	<ul style="list-style-type: none"> - Lana - emaitza ez da parekoa - Lan asko dago egiteko

OHARRA: Santa Eskia eta Gazte Informazio gunea aipatuak izan dira, baina ez dira baloratuak izan denbora faltagatik.

1.2 AURRERA BEGIRA: euskara Elgoibarren eta Elgoibarko Izarra elkartearen etorkizunera begira

1.2.1 EUSKARA ELGOIBARREN.

➤ **Elgoibarren euskararen erronkak definitzen, 2020.urtera begira:**

Elgoibar 2020.urtean irudikatu eta zer nolako euskararen egoera topatu nahi duten galdetuta, honakoa izan da erantzuna:

NOLAKO EUSKARAREN EGOERA TOPATU NAHI DUZU ELGOIBARREN?
<p>Euskararen ERABILERA:</p> <ul style="list-style-type: none">- Harreman formal eta informaletan euskara gailentzea/erabiltzea- Euskararen erabilera erdararen gainetik kokatzea.- Adinari erreparatuz gero, haur eta gazteen erabilera helburuak zehazki aipatuak izan dira:<ul style="list-style-type: none">o Egungo egoerari dagokionean, haurren erabilera maila gazte direnean mantentzea.o Era berean, eta egungo egoerari dagokionean, gazteen erabilera maila heldu direnean mantentzea.
<p>Euskararen MOTIBAZIOA ETA KONTZIENTZIA:</p> <ul style="list-style-type: none">- Euskararen erabileraren garrantzia kontzientea egitea- Kontraesankorra den hausnarketa plazaratu da:<ul style="list-style-type: none">o Batzuek euskararen aldeko militantzia eta jarrera aktiboa sustatu behar dela adierazi dute. Euskararen aldeko erabakia kontzientea izan behar du.o Beste batzuentzat, aldiz, gozamenaren bidez edo ekintza gustagarrien bidez batuko dira herritarrak euskarara. Erabaki kontzienterik gabekoa izan behar du.

Partehartzaileen erantzunak askotarikoak izan badira ere, emaitza bi multzotan barnebildu daiteke. Batetik, euskararen erabilerari eginiko erreferentziak daude. Partehartzaile guztiek **euskararen erabilera handiagoa** den egoera ideala defendatu dute (erdararen gainetik, egunerokoaren esparru orotan...). Bestetik, euskararen motibazio eta kontzientzia aipatu dute. Kasu honetan, **kontraesanean dauden bi hausnarketa** mahai gaineratu dira: **batzuek euskararen erabilera kontzientea defendatu duten bitartean, beste batzuek gozamenaren edo ekintza gustagarrien bidez jendea (bereziki gazte eta nerabeak) euskarara erakartzearen alde agertu dira.**

1.2.2 ELGOIBARKO IZARRA ELKARTEA.

➤ **Elgoibarko Izarra elkartearen erronkak definitzen, 2016.urtera begira:**

2010.urtean Elgoibarren euskarak aurrez definituriko egoera izateko, Elgoibarko Izarrak 2016. urtera begira dituen izaerari eta jarduerari dagozkion erronkak landu dira. Jarraian, partehartzaileek sorturiko emaitzak:

NOLAKO ELKARTEA BEHAR DU ELGOIBARREK? (IZAERA)
1) Herriko beste egitura, entitate nahiz guneetan eragingo duena eta elkarlana bultzatuko edota sortuko duena (harremanak, sareak...).
2) Ekintza erakargarri, gustagarri, gozamenezkoak bultzatuko dituen euskara sustatzeko , baina euskara bitarteko.
ZEIN IZAN BEHAR DU ELKARTEAREN JARDUNA? (JARDUERA)
- Elkarlana eta elkarrekintza bultzatu entitate ezberdinekin: elkartegintza, kirol elkarteak, hezkuntza, gazteak, aisialdia...
- Gozamina eragingo dituen ekintzak sortu edota bultzatu

Elgoibarko Izarra elkartearen eginkizunetan sakondu ahala, zehaztapen gero eta gehiago agertu dira. Era honetan, izaerari eta jarduerari dagozkion erronkak harremanetan dauden bi eremuren baitan formulatu dira, **orain arteko joerari jarraiki**. Zehazturiko **lehen erronka Elkarteak euskararen sustapenean egin beharreko eragiteari zein elkarlanari loturik** dago. Honen baitan, entitate ezberdinekin elkarlana eta elkarrekintza egitearen alde agertu dira (jarduna). **Bigarren erronka, aldiz, ekintza erakargarri, gustagarri eta gozamenezkoak bultzatzea izan da**, beti ere, euskara garraioa, bitartekoa izango delarik, eta euskara sustatzea, zehazkako helburua izango delarik. Proposatutako jarduerak ere ildo berean kokatu dituzte.

➤ **Elgoibarko Izarra elkarte, erronka zehatzak:**

Jarraian agertzen direnak, hausnarketa partekaturako tailerretan egindako lan dinamiken emaitzak dira. Kasu honetan, Elgoibarko Izarra elkarteak aurrera begira jorratu beharreko erronkak zehazten dira, partehartzaileek sortu eta landutako emaitzak kontutan hartuz:

ERRONKA ZEHATZAK
1) HERRIKO EGITURA, ENTITATE ETA GUNEETAN ERAGIN EUSKARAREN ERABILERA AREAGOTZEKO.
- ERAGINA. Batetik, herriko beste elkarte eta entitateengan eragina duena (beregianatu gabe). Bestetik, herrian existitzen diren gune erakargarri eta gustagarrietan eragin.
- HIRU DIMENTSIO:
• Modu kontzientean (erabakia)
• Zeharka (ez erabakirik)
• Mixtoa: kontziente planifikatu, zeharka aplikatu, erabakia kontzientea
- LEHENTASUNEZKO EREMUAK: gazteak, gurasoak, helduak, hezkuntza.
2) EUSKARAREN ERABILERA ETA MOTIBAZIOA SUSTATU ekintza gustagarri, erakargarri eta gozamenezkoen bidez.

Partehartzaileen iritziz, eta koadroan ikus daitekeenez, Elgoibarko Izarra elkarteak bere gain hartu beharreko erronkak bi multzotan bana daitezke:

Alde batetik, **euskararen erabilera sustatzeko herriko gune edota entitate ezberdinetan eragiteko erronka** du Elgoibarko Izarra elkarteak. Kasu honetan, eragiteko lehentasunezko eremu zehatzak definitu dituzte, beti ere, unean uneko egoerara doitu direnak. Eragin funtzio horren nolakotasunari dagokionean, aldiz, hausnarketa kontraesankorrak mahai gaineratu dira eta partehartzaileek hiru dimentsio ezberdinak dituzte: bata, euskararen erabilera modu kontzientean egitea da, euskararen aldeko hautua

jarrera bat izatea, kontzienteki hartzen den erabakia; bestea, zeharkako lanketaren bidez (adibidez, ekintza gustagarrien bidez) egiten dena legoke, inolako erabakirik gabea; azkena biak batzen dituen dimentsioa dago non kontzienteki planifikaturiko ekimenaren bidez, zeharka aplikatuko den (euskaraz hitz egin modu inkontzientean) eta, azkenerako, norberaren erabakia kontzientea izango den (jarrera berria).

Bigarren erronka, aldiz, euskararen erabilera zein motibazioa sustatzea ekintza gustagarri, erakargarri eta gozamenezkoen bidez. Erronka honi dagokionez, zehazki aipatua izan da, kalitatearen garrantzia, kantitatearen garrantziaren aurretik.

GUREAN BAI (hitzarrena)	GUREAN BAI-ELKARTEAK	<ul style="list-style-type: none"> Euskararen erabilera sustatu elkarteetan eraginez 	
	GUREAN BAI-MERKATARITZA	<ul style="list-style-type: none"> Euskararen erabilera sustatu ostalaritzan eraginez 	
BESTELAKOAK	TERTULIAK PROGRAMA	<ul style="list-style-type: none"> Erabilera eta ezagutzan eragitea helduengan 	
	NAZIO MAILAKOAK	<ul style="list-style-type: none"> Gazteengan eragitea ekintza gustagarrien bidez 	

OHARRA: gorriz idatzita dauden zerbitzuak ez daude martxan gaur egun. Koadroa irakurtzerakoan, hiru gometza hori baino gehiago jaso duten ekimen horietaz bereziki hausnartu beharra azpimarratzen da. Gorriak azaltzen diren kasuetan ere, bereziki hausnartzea gomendatzen da. Bi edo hiru gometza salbu, gainerakoak berdeak direnean, ekimenak onarpen handia irakurtzea gomendatzen da.




Oro har, balorazio positiboa jaso dute Elgoibarko Izarra elkarteak antolatzen dituen ekimen, ekitaldi nahiz zerbitzuak. Partehartzaile gehienek iritzia izan da zenbait ñabardura eginez, mantendu beharrekoa dela eskaintza. Era berean, azpimarragarria da, **ekintza gustagarri edo erakargarriak, hots, plazer indibidual zein kolektiboa bultzatzen dutenak eta euskararen erabilera zeharka bultzatzen dutenak, hobeto baloratu** dituztela gehienek eta zalantza gutxi sortu dela hauen inguruan.

Lanketa kontzientea eta gazte edo nerabeen parte hartzea eskatzen duten ekintza, ekitaldi edo zerbitzuetan, ordea, aldatu beharrekoak atzeman dituzte partehartzaileek. Zentzu honetan, **lanketa kontziente eta inkontzientearen arteko harremana eta honen ondorioak** aztertu beharko lirateke. **Plazerrak edo gozamenak orain arte eskaintzen diren ekintzetan eta lortzen diren emaitzetan duen lekua** ere aztergai beharko luke izan.

Ondorio orokor gisa, esan genezake, **gazte eta nerabeei zuzenduriko eskaintza berraztertu beharrekoa** dela, definituriko erronkak lortu nahi diren helburuarekin harremanetan jarriz eta eskaintzaren subjektua azterketaren erdigunean kokatuz. Adibide gisa, eta partehartzaileek sorturiko emaitzetatik abiatuz, hona hemen berraztertu daitezkeen/beharreko hainbat eremu: maiztasuna (asteroko dinamika batek beharkizuna suposa dezake eta aldiz, hilabetean behin egiten den ekintza gustagarria suerta daiteke), zerbitzuari egozten zaizkion helburuen dimentsioa (helburu zehatz eta neurgarrietara jo behar da), parte hartzaileen joerak...

{ 2 PROZESUAREN ONDORIO NAGUSIAK }

Azken atal honetan, prozesu honetatik ondorioztatzen diren diskurtso nagusiak kokatzen dira. Aipatutako **diskurtsoak, prozesua bera garatutako lan eskemaren arabera sailkatuz aurkezten dira: lehenik, euskararen **erronkari buruz**, orokorrean, Elgoibarrerako kokatu diren iritzi eta hautemateak; **azkenik, Elgoibarko Izarra Elkarterako kokatu diren iritzi eta hautemateak**. Jarraian, aipatutako sailkapen horren arabera agertzen dira diskurtsoak biltzen dituzten ideia nagusiak:**



➤ **ELGOIBARREN EUSKARA HERRIKO HIZKUNTZA ERREFERENTE NAGUSIA IZATEA:**

Hiru diskurtso ezberdin kokatzen dira euskarak izan behar duen erreferentziaren inguruan:

- 1-** Euskararen erreferentzia **hautu kontziente eta erabaki kontzientea** izan behar du; beraz, ideologikoki konbentzitu edota bultzatu behar da jendartea. Horrela, euskal komunitatea erreferentea izan behar du Elgoibarren, eta egoki asmatu behar du bere produktua kokatzen, gerora saltzeko.
- 2-** **Euskararen erreferentzia, plazerraren ondorioz** gertatuko da, **konpromisorik gabeko** ekintzen bidez, eta **era ez kontziente batean**. Batez ere haur, gazte eta helduen adin tarterako ekintzek edo egitasmoek seduzitu eta erakarri behar dute, eta horiek euskaraz egiteak bigarren mailako elementua izan behar du, ez kontzientea, **konpromiso espliziturik eskatuko ez duena, hautu espliziturik gabekoa**.
- 3-** Aurreko biak bere barne hartzen dituen diskurtsoa da hau: **era kontzientean planifikatu behar da, zeharka eragin ahal izateko**. Hots, egitasmoak, ekintzak eta zerbitzuak diseinatu eta bultzatu behar dira kontzienteki, eta euskara helburu, Elgoibarren euskal komunitatera eta euskaraz jardutera erakartzeko jendartea. Horietan, gozamina eta konpromiso eza ere, zeharka, baina planifikatu behar da.

Aurreko diskurtsoak, **adinaren aldagaia kontuan izanik** aztertzerakoan, esan daiteke **elkar ulertzeko zailtasunak daudela gazteenen eta nagusien artean:**

- **Gazteenek** plazerra kokatzen dute edozeren abiapuntu eta helburu. **Euskara ulertzen dute plazer hori bideratzeko tresna gisa**, modu inkontzientean beti, eta konpromiso aipaturik gabekoa (erabaki kontzienterik gabekoa; ideologiaren kargak ateak itxi ditzake).
- **Nagusiagoak** direnak aldiz, aldaketa emateaz ari direnean, hots, batez ere gaztelaniaz bizitzetik euskaraz bizitzera pasatzerakoan, ezinbestez ulertzen dute erabaki kontziente bat, **deliberazio kontziente baten ondorioz** gertaturikoa. Horretan, **euskararen onura pragmatikoak ikusten** dituzte, **eta horiek ikustarazten asmatu beharra ulertzen dute**. Beraz, atxikimendu bat eta posizionamendu bat ulertzen dute edozein jokaera aldatzeko edota finkatzerakoan.



Aipatu behar da, gai honen inguruko hausnarketan aurrera joan ahala, **erdiko adin tartean** kokatzen ziren partaideek **gehiago jo dutela gazteen diskurtsorantz**. Horrela, **errealagoa eta eraginkorragotzat jo dute plazerraren diskurtsoa**. Ikuspegi honetan, ondorioztatu izan da, hobe dela bi gertaeren bidez eragin eta arrasto ona uztea, 10 gertaeren bidez, ia batere eraginik ez uztea baino.

➤ **ERABILERA:**

Euskararen erabilera da helburua, jomuga, produktua... Argi dago ezagutza bermatzeko tresnak badirela Elgoibarren, eta datozen belaunaldietan euskara jakingo dutela (hezkuntza). Eta argi dago, era berean, ezagutza izateak ez duela bere horretan ekartzen erabiltzaile izatea. Euskararen erabilera normaltzeko prozesu baten beharra dago. Euskararen ezagutza prozesu baten bidez eskuratzen den neurrian, erabilera ere prozesu baten baitan ulertu behar da. Aldi berean, erabilera normalizatuago batek ekarriko du etorkizunean ere, ez dakitenek ezagutza eskuratzea.

➤ **ELGOIBARKO IZARRA ELKARTEA: ERREFERENTZIA IREKIA ETA HARREMANDUA**

Elkarreak ez du izan behar erreferentzia itxia, isolatua. Elkarreak beste eragileekin batera ekintzak eta egitasmoak antolatu behar ditu elkarlanean. Elkarlan horretan, euskara izango da bitartekoa, baina ez da izango helburu programatua eta aipatua. Elkarlan eta harreman horietan, alde aurretik eta modu ez kontzientean, euskaraz aritzea araua izango da, kontzienteki eta hautu bidez egingo ez dena. **Euskara=Elgoibarko Izarra elkarte bereiztea eta zabaltzea lortu behar da. Horretan, Elgoibarko Izarrak kultura erreferentzia eta elkarbizitza erreferentzia lortu behar ditu, beti ere, erakertasuna eta gozamenaren bidez.**

Erdal komunitatea - Euskal komunitatea dikotomia gaintitu, eta komunitate irekia sortu behar da (elgoibartarren komunitatea?), non elkar eragitearen bidez, **espazio eta jardun komunak** izango diren. Horrela, datozen 10 urteetan, gazte, haur eta heldu gehienek hizkuntzaren ezagutza izango dutenez, aukera izango da komunitateen artean modu irekian fluxuak mugitzeko. Horretan, berriro ere, erakertasuna, gustagarritasuna lortzea da erronka.

➤ **ELGOIBARKO IZARRA ELKARTEA: EUSKARAREN ERABILERA BULTZATZEKO TRESNA**

Elkarteak tresna izan behar du, eta ez helburu. Horrela, bere jardunean helburuak kokatzerakoan, aldiro hausnartu eta aztertu behar du **helburu idealei begira** ote dagoen, **edota errealei begira**. Maiz gertatzen da helburu ideal goregikoak zehazten direla, eta ondorioz, frustrazioak sortzen direla. Proposatzen dena da, **helburu lorgarriak, neurgarriak, eta errealitatean oinarriturik daudenak** zehaztea. Horretan, **mekanismoak behar** dira, plangintzen jarraipena eta moldaketa egokitzeko aldiro. **Ebaluatze sistema** irekiak aldiro aplikatu behar dira, eta sistema horiek definitu eta tresna gisa martxan jarri behar dira (adierazle sistemak ?).

Elkarteak ezin ditu bere gain hartu euskararen inguruan gertatzen diren guztiak. Aldi berean, Elgoibarko Izarra elkarte ELGOIBAR EUSKALDUNTZEKO tresna baino (misio handiegia, eta elkarteak soilik ezin duena garatu), **helburu mugatuagoa izan behar du**. Aurrez aipatu bezala, bai elkartearen helburu orokorrak, bai helburu zehatzei dagokionez, **neurgarriak izango diren adierazle garbiak** izan behar dute, horrela, aurreratzen den edo ez aldiro neurtu ahal izateko. Adibide gisa: kirol elkarteak urtean zenbat ekintza irekiak egin dituen euskaraz, eta zenbat gazteleraz, neurtu daiteke, eta horren jarraipena egin daiteke ere.

➤ **ELKARTEAREN JARDUNA: ELKARLANAK, EKIMEN BATERATUAK, HARREMAN SAREAK**

Aurreko atalean aipatutakoaren harira, proposatzen da **herrigintza ikuspegitik, eragile ezberdinen arteko harremanak eta elkarlanak edota sareak sortzea/sustatzea**. Elkarlan eta sare horietan eragiteko aukera eta gaitasuna izan behar da alde guztien aldetik. Aipatutako harremanek, ez dute posizio joko ezberdinik izango, ez dira botere harremanetan oinarrituko, non batak bestea irentsi eta desitxuratuko duen (denek onura atera behar dute harreman horietatik, eta ahal bada, gutxi utzi bidean). **Asmatu behar da parez pareko harremanetan**, garaipen partekatuetan, non bakoitzak onartu eta errekonozituko duen bestearen ekimena, eta umiltasunez, beretik ere emango dion.

Horrela, zeintzuk dira horretarako mekanismoak? Koordinazio gune komuna sortzea da? Elgoibarko herrigintzaren ekimenen mapa sortzea da? Ongi aztertu behar da zein izan daitezken formula ezberdinak, eta frogatu, neurtu, eta aplikatu.

➤ **PLAZERRA ETA SEDUZIOA: ELKARTEAREN BAITAN, ETA BESTEekin HARREMANETAN**

Aztertu behar da **nerabe eta gazteekin dagoen ahulezia zerekin lotzen den** (ezagutza falta? Haur munduaren erreferentea ote den elkarte haienentzat? Militantzia eta konpromisoarekin lotzen dute? Gune itxiztat jotzen dute elkarte?). Ezer baino lehen, aztertzea komeni litzateke, bai euskarari buruzko pertzepzioak, iritziak eta hautemateak, eta baita elkarteari buruzkoak ere.



Gazte eta nerabeei dagokionez, kontuan hartu behar da oso, egunerokoan bizi duten errealitatea, eta egunerokoan bizi ditzaketen sentsazioak. Ondorioz, **erakartasuna, askatasuna eta plazerra dimentsio pribatuetan sumatzen dutela ematen du** (lokal pribatuak e.a.). Harreman irekiagoei buruz, publikoagoei buruz, herrikoiagoei buruz, zer diote?

Dagoen eskaintza kulturala, musikala, e.a. beste hizkuntzetan ez da kopiatu behar, horrek ez du funtzionatuko, behin baino. Merkatuan dauden bestelako aukerekin lehiatzeak ez du emaitzarik emango. Horretan guztian, aztertu behar da ere, IKT-etan eragiteko aukera zein den, nahiz eta aldez aurretik jakin, eremuak Elgoibarko herri bitzta gainditzen duela, eta lan esparru orokorragoa dela.

Oinarrian, esaldi nagusi bat izan da ideien oinarrian: asko eta sakabanatuak baino, **hobe gutxi, originalak eta onartuak izatea**, gazte eta nerabeen arreta deituko duten ekintza edota egitasmoak. **Kualitatiboki diseinatu eta eskaini** behar dira adin tarte honi zuzenduko zaizkionak.

➤ LAN DINAMIKA KONTZIENTEAREN BEHARRA, ESPARRU ZEHATZETAN

Diskurtso hori ere badago: **kontzientzia pizten asmatu beharra. Adin zehatzetan dagoen joera da, baina bide motza eta ez erraza duela ondorioztatzen da orokorrean.** Haratago joanda, bidea egina eta bukatutzat ere ematen da.




Aipatzen da **gurasoengan eragiteko**, zeharka bai, baina kontzienteki eragitea ere beharrezkoa dela, besterik ez bada, ohartzeko haien ekintzaz (batez ere, euren seme-alabengan duten eraginaz), eta horiek aldatzeko onuraz. Beraz, kontzienteki eragin beharra, belaunaldi zehatz batzuekin lotzen da, hain zuzen ere, guraso eta helduen adin-tartean. Ez da baloratzen belaunaldi horietan soilik kontzienteki eragitea. Plazerra eta sedukzioarekin jokatzera ere baloratzen da.

Honaino bada, prozesu honetan zehar elgoibartarren artean izandako iritziak, pertzepzioak eta joerak, euskarari buruzkoak orokorrean, zein elkarteari buruzkoak zehatzean. Asko azpimarratu behar da, herritar horiek, haien burua herritar gisa ulertu dutela aldiro hausnarketan, eta pozik azaldu direla haien ekarpenak balioa izango badu. Eta argi adierazi dute ere, haien ekarpenak ezagutza partzial handia izan dezaketela, eta ondo kontrastatu behar direla. Umiltasuna azaldu dute aldiro haien iritziak eta proposamenak plazaratzerakoan.

Aipagarria da, denontzat oso komuna izan den erreakzioa, aurrera begira jartzeko eskaera zehatzen aurrean: **"badakigu nora iritsi nahi dugun, eta zein egoera topatu nahi dugun bukaeran, baina hara iristeko biderik ez dugu argi ikusten, edota sasiz eta oztopoz beteta ikusten dugu"**. Egungo gizartearen joerek ez dute laguntzen, eskaintzak oso oparoak direlako beste esparruetan, eta konpartitzea eta elkar ekintzan aritzea ere oso zaila delako. Beraz, helmuga idealei begiratzeko eta errealitatean etsipenean jotzeko joera nabarmena dagoela dirudi. Ziur aski, amaierarako helmugara eten gabe begiratzera baino, **urratsei eta prozesuei gehiago erreparatzen ikastea** egon daiteke gakoetako bat.

AZKENIK, amaitzeko, honako kontzeptuak azpimarraturik errepikatzerata gatz, barne hausnarketaren oinarria izan daitezen helburuarekin:



ELGOIBARKO IZARRA ETA EUSKARA ELGOIBARREN:

I.ERANSKINA

(Hausnarketa prozesuan parte hartutakoen perfila)

	SEXUA	ADINA	HIZKUNTZA	ELGOIBARKO IZARRA ELKARTEAREKIKO KOKAPENA	BESTE
1	Gizonezkoa	17-30	Euskal hiztuna	Aisialdi begiralea elkartearen barruan	Soilik aisialdi eremuan inplikazioa duena.
2	Emakumezkoa	17-30	Euskal hiztuna	Aisialdi begiralea elkartearen barruan	Izaera militantea ere baduena, (elkarrean eta beste nonbaiten)
3	Gizonezkoa	30-45	Euskal hiztuna	Elkartearen bizitzaren parte izan dena, orain soilik ekitaldi puntaletan partaide dena.	Famili ardurak baditu, hobe
4	Emakumezkoa	30-45	Euskal hiztuna	Elkartearen bizitzaren parte izan dena, orain soilik ekitaldi puntaletan partaide dena.	Famili ardurak dituena
	Gizonezkoa	35-50	Euskaldun berria	Mintzalagun programan partaide izan dena edo dena	Herrian beste parte hartzerik ez duena
6	Emakumezkoa	35-55	Euskaldun berria edo erdal hiztuna	Mintzalagun programan partaide edo euskaltegian ikasle	Seme-alabak dituena
7	Gizonezkoa	40-55	Euskal hiztuna	SEMEA EDO ALABA, elkarteko programaren batean partaide duena (aisialdia, ludoteka...)	
8	Emakumezkoa	35-55	Erdal hiztuna edo euskaldun berria	SEMEA EDO ALABA, elkarteko programaren batean partaide dena (aisialdia, ludoteka...)	Euskararekiko jarrera ona duena (aurkakoa behintzat ez)
9	Emakumezkoa	50 urtetik gora	Euskal hiztuna	Ikastolako andereñoa	Herria ere ezagutzen duena
10	Gizonezkoa	40 urtetik gora	Euskal hiztuna	DBH edo Batxilergo maisua	Herria ere ezagutzen duena (nahiz bertan ez bizi)
11	Emakumezkoa	60 urte edo gehiago	Euskal hiztuna	Euskaltzalea, eta elkarte barrutik ere ezagutu zuena. Egun ekitaldi puntaletara soilik joaten dena	Pentsalaria
12	Gizonezkoa	60 urte edo gehiago	Euskal hiztuna	Elkartearen bi etapa ezagutu izan dituena, euskaltzalea. Egun kezka pertsonala izaten jarraitzen duena.	Pentsalaria
13	Gizonezkoa	Berdin da	Erdal hiztuna edo euskaldun berria	Berdin da	Sozietate biritza eta jarduera duena (gastronomikoa). Herri biritza ezagutzen duena
14	Emakumezkoa	Gaztea	Berdin da	Berdin da	Lonjatan ibiltzen dena. Beste askorik egiten ez duena.
15	Emakumezkoa	Gaztea	Berdin da	Elkartearekin harreman askorik ez duena, baina euskaltzalea dena	Kirolaria dena edo kultur jardueratan diharduena
16	Gizonezkoa	Gaztea	Berdin da	Elkartearekin harreman askorik ez duena, baina euskaltzalea dena	Kirolaria dena edo kultur jardueratan diharduena

ELGOIBARKO IZARRA ETA EUSKARA ELGOIBARREN:

II.ERANSKINA
(Eginiko 3 tailerren memoriak)



ELGOIBARKO IZARRA ETA EUSKARA ELGOIBARREN: HAUSNARKETA PARTEKATURAKO TAILERRAK, 2011

Data: 2011-03-2

Tokia: Elgoibarko Kultur Etxean

Parte-hartzaileak: Elgoibarko 14 herritar, Elgoibarko Izarra Elkarteko arduraduna eta Aztiker Ikerguneko 2 teknikari

Iraupena: 18:30 – 21:00

2011-03-2, LEHEN SAIOAREN MEMORIA

1.- PROZESUAREN AURKEZPENA ETA EGUNEKO SAIOAREN KOKAPENA

Parte-hartzaileei harrera egin ondoren, Elgoibarko Izarra elkarteko arduradunak hausnarketa partekatua egiteko arrazoiak agertu ditu.

Jarraian, Aztikerreko teknikariak prozesua kokatu, lan metodologiaren inguruko azalpenak eman eta eguneko saioa aurkeztu du. Lan egiteko moduari dagokionean, eguneko saioaren memoria osatu eta partaide guztiei bi eguneko tartean helaraziko zaiela jakinarazi da, aldaketa edo ekarpenak egin ditzaten.

Lan dinamikarekin hasi aurretik, elkar ezagutzeko eta lan giroa lortze aldera, pilotaren jolasa egin da. Pilota bat eskuz esku pasa da, eta partaide bakoitzak bere aurkezpena egiteaz gain, prozesuaz espero duena ere azaldu du, honela:

- *Jendeak elkarteari buruz pentsatzen duena ezagutzea espero dut*
- *Aurrera begirako norabidea zehazteko baliagarria izatea espero dut. Nire aletxo jarri nahi dut.*
- *Elgoibarko Izarra Elkarte barrutik ikusi eta nire aportazioa bideratu nahi dut.*
- *Elkarteari buruz zerbait berria, polita ezagutzea espero dut. Motibagarria izatea.*
- *Zerbait ematea espero dut, baina ez dakit zer.*
- *Espero dut denon artean zerbait lantzeko gai izatea*
- *Ez dakit zer espero dudan, baina ziur gauza ona izango dela*
- *Elgoibarko Izarra elkarte gehiago ezagutzea espero dut*
- *Beti nago prest gauzetan parte hartzeko. Elkarte gehiago ezagutu nahi dut. Etorkizunak zer ekarriko duen jakin nahiko nuke*
- *Perfila betetzen dut, gizona bazkidea da... ez dakit*
- *Bilkurak baliagarriak izatea espero dut*
- *Elgoibarko Izarra lagundu nahi dut.*
- *Elkartearen beharra ikustea espero dut, beharrerako dauden arrazoiak. Aurrera begira ze?*
- *Eta berria martxan jartzea*
- *IMANOL: lan zintzoa, serioa eta zurikeriarik gabekoa izatea espero dut guztion aldetik. Lana elkartearen etorkizunerako baliagarria izatea espero dut.*

2.- LAN TALDEEN OSAKETA

Osoko bilkuran kokapena egin ondoren, bi lan talde osatu dira lan dinamikak aurrera ateratzeko. Bi lan taldeak, adina eta sexuari dagokionean, parekoak izan dira. Horrez gain, partaideek Elgoibarko Izarraz duten ezagutza eta parte hartzea orekatu da.

Lan dinamikei ekin aurretik, Aztiker ikerguneko teknikariak hainbat ohar egin ditu lan egiteko moduz:

- Irabazle-galtzaile eskema alboratu eta partaide guztien iritziak bildu nahi dira.
- Elgoibarko Izarra elkarteaz talde ikuspegia osatu nahi da. Zentzu honetan, bat-bateko iritzi eta hautemateek dute garrantzia, kutsu ideologikorik gabe egiten direnak baitira norbanakoen hautemateen egiazko informazioa eskaintzen dutenak.

3.- LAN DINAMIKAK

Partaide guztiak bi lan taldeetan banatuta garatu dira edukiak sortzera bideraturiko lan dinamika guztiak. Zehazki, 3 lan dinamika egin dira. Hurrengo lerroetan lan dinamika bakoitzaren azalpena ematen da, eta lan taldeetan sorturiko edukia ondoren aurkitzen da:

3.1.- EUSKARA ELGOIBARREN: IRITZI ETA HAUTEMATEAK

Lan dinamika honen bidez, partaideen iritzi eta hautemateak ezagutzea izan da helburu, Elgoibarren euskarak duen egoeraren inguruan. Ezagutza, erabilera eta motibazioa hartu dira ardatz eta indar-guneak zein ahuleziak identifikatu dituzte partaideek.

3.2.- ELGOIBARKO IZARRA ELKARTEA

Zer da zuretzat Elgoibarko Izarra? Zein iritzi, hautemate duzu egungo jardueraz? galderak proposatu zaizkie eta hiru hitz edo kontzepturen bidez adierazi dute erantzuna. Horretarako, partaide bakoitzari hiru postit eman zaizkio eta bakoitzean hitz edo kontzeptu bat idatzi dute.

3.3.- ELGOIBARKO IZARRA ELKARTEAREN EZAGUTZA AZTERTZEN

Azken lan dinamikan partaideek Elgoibarko Izarra elkarteaz duten ezagutza aztertu da. Horretarako binaka jarri eta, fitxa baten laguntzaz, Elgoibarko Izarraz ezagutzen dutenaren alde positiboak eta negatiboak identifikatu dituzte.

A TALDEA

	INDARGUNEAK	AHULEZIAK
EUSKAREREN EZAGUTZA	<ul style="list-style-type: none">- Eskola guztietan D eredia- Gazte guztiek ezagutzen dute- Enpresak ikastaroak eskaintzen ditu	<ul style="list-style-type: none">- Etorkinak- Euskaldun berriei ez laguntzarik eskaini- Baina lan orduetatik kanpo eta orduak errekueratu behar dira
EUSKAREREN ERABILERA	<ul style="list-style-type: none">- Haurrek hitz egiten dute- Helduengandik transmisioa egon da- Herriko hizkera mantendu da	<ul style="list-style-type: none">- Kanean ez da entzuten, orokorrean- Tabernatan ez da entzuten- Eskolatik kanpo, gazte eta nerabeek ez dute erabiltzen- Baina gero eta gutxiago- baina galtzen ari da

EUSKARAREN MOTIBAZIOA	- Barren aldizkaria	<ul style="list-style-type: none"> - Teknologia berrien eraginez (erdarazkoak dira nagusi), ez da euskaraz irakurtzen - Komunikabide euskaldun falta - Euskara beharkizuna da, ez dago modan - Adin ezberdinen arteko hartu-eman falta - Etorkinen motibazioarentzat bitarteko falta (eta,oro har) - Kontzientzia falta - Instituzioek ez dute laguntzen - Kuadrilategin parte hartzeko baldintzak betetzeko zailtasunak (euskaraz hitz egitea) - Elkarte kultural gutxi
----------------------------------	---------------------	---

ELGOIBARKO IZARRA: IRITZI ETA HAUTEMATEAK
<ul style="list-style-type: none"> - Euskara eta kultur elkartea - Euskaraz lan ezberdinak martxan dituen - Euskararen erreferentzia - Euskalduna - Euskara - Euskalgintza - Erabilera - Barren - Kultura - Aisialdia - Herritarra - Lan taldea - Militantzia - Garrantzitsua - Ezezaguna - Ezkutukoa - Ez ezaguna - Elkarte ezagun ezezaguna

ELGOIBARKO IZARRA ELKARTEAREN EZAGUTZA		
EKIMENAK, EKITALDIAK, ZERBITZUAK...	ALDE POSITIBOAK	ALDE NEGATIBOAK
BARREN	<ul style="list-style-type: none"> - Euskaraz irakurtzeko aukera - Herriko ezagutza - Gertukoa -Euskara hutsezkoa (+ bertako euskalkia) 	<ul style="list-style-type: none"> - Kulturari ez tarte gehiegi (kirola asko agertu)
GUREAN BAI	<ul style="list-style-type: none"> - Ostalaritza eta merkataritza euskalduntzeko bitartekoak eskaini 	<ul style="list-style-type: none"> - Desagertu izana - Udalak ez dirulaguntzarik
ATXUTXIMAIIKA	<ul style="list-style-type: none"> - Umeentzako zerbitzua - Euskaraz hitz egiteko aukera eskaini eskolaz kanpo 	<ul style="list-style-type: none"> - Ez da guztira iristen. Arrazoiak? Dirua?
KIRIBIL	<ul style="list-style-type: none"> - Umeak plazan biltzen ditu - Guraso-haur transmisioa bermatu 	<ul style="list-style-type: none"> - Gainbeheran (eduki eta baliabideei dagokionean) - Gurasoak ez parte hartu
KUADRILLETEGI	<ul style="list-style-type: none"> - Euskara kuadrillan erabiltzeko zerbitzua zen 	<ul style="list-style-type: none"> - Desagertuta
BERBAZULO	<ul style="list-style-type: none"> - Etorkinentzat euskara errefortzua eskaini 	<ul style="list-style-type: none"> - Ezezaguna/ entzunez
TERTULIAK	<ul style="list-style-type: none"> - Harremanak euskaraz sustatu 	<ul style="list-style-type: none"> - Jende eskasia (euskaldun zaharrak) - Denbora gutxi, baina ez da gehiago nahi
LURRA ETA HIZKUNTZA	<ul style="list-style-type: none"> - Hurrekin irteerak Elgoibarretik - Jendeak beretik eman du 	<ul style="list-style-type: none"> - Udalak proiektua ez onartu (autogestionatua)
UDAL EKIPAMENDUAK (gaztelekua eta ludoteka)	<ul style="list-style-type: none"> - Herriko aisialdi eskaintza Elkarteak bideratzen du, euskaraz 	<ul style="list-style-type: none"> - Herrikan kanpo kokatuak - Udalaren jabetza/kudeaketa - Parte hartze adinetik kanpo, ezezagutza

EKINTZA KULTURALAK	- Ohiturak mantendu - Ondo pasa	- Gutxi antolatzen dira
JOLASIAN	- Eskolako jolas orduetan, aisialdiko euskarazko eskaintza - Haurrek euskaraz jolasten ikastea	

B TALDEA

	INDARGUNEAK	AHULEZIAK
EUSKAREREN EZAGUTZA	- Haur denek D ereduan (A eredia eskatu, baina ez zen atera) - BARREN-ek interesa pizten du, euskaraz irakurtzeko	- Taldean, erdarak irabazten du - Elebakar bakarrak erdaldunak dira - Etorkin "nagusitxoak" ez dute ikasten, ondorioz, erdal giroa - Elebidun pasibo asko (50 urtetik gora) - Elgoibarko euskalkia ez da transmititzen - Batuak ez dut txisparik
EUSKAREREN ERABILERA	- Gero eta jende gehiagok erabiltzen du - Elgoibarko Izarrak antolatzen dituen ekintzetan erabilera bultzatzen du. Adib: kiribilean (haur eta helduei zuzendua) - Guraso izaterakoan, erabilera handitu	- Ez da nahikoa erabiltzaile kopurua - Jende gehiagok ezagutu, baina ez erabili - Erabilera ezagutzaren azpitik dago - Kalitatea. Erdarakada asko. Erdarara erraz pasatzen dira - Elgoibarren ez da beharrezkoa, erdaraz erraz bizi daiteke - -Askotan gurasoak euren artean erdaraz. Beraz, haurrei euskaraz hitz egin arren, seme-alabentzako eredia erdalduna bihurtzen da
EUSKAREREN MOTIBAZIOA	- Ekonomia-lana - Umeekin harremantzeko (transmisioa) - Esparru berriak euskararen bultzadarako (gaztelekua, ludoteka...) - Batzuk, herritar batzuk, honetan gaude	- Herri kontzientziarik ez - Euskararen militantzia zatarra da - Nerabe-gazteek erabaki behar eta erdara erabakitzen dute.

ELGOIBARKO IZARRA: IRITZI ETA HAUTEMATEAK
<ul style="list-style-type: none"> - Euskararen alde taldekoea da - Euskararen erabilpenaren bultzatzaile - Euskararen ikurra - Euskararen gunea (arnas gunea) - Herrian euskararen zutabe - Elgoibarko Izarrarik gabe, euskarak indar gutxi edukiko luke - Elgoibarren euskara bultzatu - Euskara elkarte - Elgoibarko Izarra eta ekintza, umearekin eta gazteekin lotuta dago, euskararen alde - Euskara indartzen duen elkarte - Euskaldunen gunea indartzeko elkarte - Euskararen ghettoa - Inplikazioa zabaldu beharra - Ezkutuko lana - Elgoibarko umeentzako mugimendu bat - Herria mugitzen du - Partaidetza - Harremanak - Euskal kultur elkarte - Euskal kultura Elgoibarren sustatu - Euskal kultur elkarte - Elkarte indartsu eta aktiboa - Ekintzailea

ELGOIBARKO IZARRA ELKARTEAREN EZAGUTZA		
EKIMENAK, EKITALDIAK, ZERBITZUAK...	ALDE POSITIBOAK	ALDE NEGATIBOAK
BARREN	- Euskara irakurtzera bultzatzen du	- Ekonomikoa
ATXUTXIAMAIIKA (aisialdia)	- Umeen erabilera bultzatzen du	- Gurasoek ez dute parte hartzen, delegatu egiten da (betebeharra taldearekin)
BERTSO JAIALDIA	- Jende ezberdina biltzen du	- Espazioa txiki gelditu da
LUDOTEKA		
GAZTE LEKUA		
KUADRILLATEGI		
KIRIBIL		- Lana – etekina ez da berdina
EUSKARA ERREFORTZUAK		
GUREAN BAI		- "Letrero" hutsa askotan
SANTA ESKIA		
MINTZA LAGUNA	- Oso positiboa: jendea ezagutu, harremana egin, erraza da, inplikazio gutxi behar - Jendeak kontzientzia hartzen du	- Jende gutxi apuntatzen da - Interes gutxi
GAZTE INFORMAZIO GUNEA		- Ez da ezaguna
AUTOBUSAK EUSKAL FESTETAN		- Helburua ez da askotan euskara, festa baizik.
OROKORREAN: (Elgoibarko Izarra elkarte)	- Euskararen erabilera eta motibazioa sustatzen du - Euskal giroa pizten du - Euskal kontzientzia pizten laguntzen du	- Lana – emaitza ez da parekoa - Lan asko/ mugimendu asko - Etekingarritasuna

4.- ATSEDENA:

Partaideak aktibatu eta elkarren arteko konfiantzan sakontzeko, jolasa egin da parte hartzaile guztiekin batera, bi lan taldeak elkarturik. Lurrean ilara bat marraztu eta partaide guztiak bertan kokatu dira. Jaiotze dataren arabera ordenatzea eskatu zaie, baina horretarako ezin dute marraztik atera. Elkarren arteko lankidetzeta, hartu emana eta laguntza lantzea dira jolas honen zioak.

5.- OSOKO BILKURA

Lan dinamikak amaituta, guztiak Osoko Bilkuran elkartu dira, lan taldeetan sortutako emaitzak konpartitu eta ondorio nagusiak identifikatzeko.

Lehenik eta behin, Elgoibarko Izarra Elkarteaz duten iritzi eta hautemateak ezagutzeko lan dinamikaren emaitzak errepasatu dira (2. lan dinamika). Horretarako, lan talde bakoitzeko partaideek postit-etan idatzitako kontzeptuak Osoko Bilkuran aurkeztu dira eta antzeko adiera duten kontzeptuak multzokatu dira.

Ondoren, Elgoibarko Izarra Elkarteaz duten ezagutza identifikatzeko lan dinamika (3. lan dinamika) gogoratu da. Kasu honetan ere, lan talde bakoitzaren emaitzak modu berezitan aurkeztu dira.

Jarraian, Elgoibarko Izarra Elkarteko arduradunak, Elkartearen ibilbidearen eta uneko goeraren gaineko azalpena egin du, hots, elkartearen misioaren inguruko azalpena.

Amaitzeko, eta guztien artean ondorio nagusiak identifikatzeko, Elgoibarko Izarraren misioa eta tailerretako partaideen bisioaren arteko alderaketa egin da. Lan dinamikatan sorturiko emaitzak, norberaren hautemateak eta elkarrearen arduradunak eginiko aurkezpena buruan, partaideei galdera bat luzatu zaie, txanda bidez banan bana erantzuteko.

Proposaturiko galdera hauxe izan da:

- *Bat egiten al dute egindako aurkezpenak eta partaideen iritzi, pertzepzioak? Ezaguna al da zuretzat eguneko saioan landutakoa? Zure ustez, zein da aurrera begira Elgoibarko Elkarreak duen erronka? Txanda batean, adierazi ezazu zure pertzepzioa hau guztiari buruz..*

Partaideen erantzunak, aldiz, jarraian aurkezten dira:

- *Historia ezaguna zitzaidan, jakitun nintzen, ez da berria izan niretzat. Ez da ideia berririk atera, lerroekin bat egiten dut. Ghetto hitza ez zait gustatu, baina uste dut jende askoren pertzepzioa dela.*
- *Lan asko dago egiteko, baina erronka parte hartzea da. Lanak zehaztu behar dira eta aurrera begiratu.*
- *Errekonozimendu falta dago. Jendeak ez du erantzuten. Etengarritasuna.*
- *Elgoibarko Izarraren historia ezezaguna nuen, harrিতта gelditu naiz. Elkarrea uste nuen baina gehiago da.*
- *Inbolukrazio edo inplikazio gutxi dago. Gehiago egin behar da.*
- *Lan pila egina dago. Orain belaunaldi berriak batu behar dira Elkartera, baina nola?*
- *Sorpresa hartu dut. Lan edo gauza pila egin dira.*
- *Lan handia egin da, baina adin tarte bateko herritarrek (gazteak/nerabeak eta helduak) ez dute parte hartzen barnetik edo ez dute ezagutzen edo ez Elkarrea ez da ailegatzen eurenengan. Agian, beste zeregin batzuetan jarduten dute? Lan asko dago egiteko.*
- *Elkarrea barrutik ezagutzen dut, baina ez nekien Gurean Bai ekimena desagertu zela. Elkarrearen jardueraren gehiengoa haur eta umeei bideratua dago. Lan asko egiteko dago.*
- *Elgoibarri aurreikusi diezaiokegun potentzialitatea kontutan hartuta, Elkarreak liderazgoa hartu behar du, patroia izan behar du eremu honetan. Lema behar du. Jende asko sartu daiteke gauzak ondo egiten badira. Jendea lanerako prest dago, parte hartu nahi du, baina nola?*
- *Lidergoan jarraitu behar duela uste dut. Lan asko dago, jendearen inplikazioa falta da, baina lan boluntarioa egiteko prest gaude?*
- *Lan asko dago egiteko. Elkarrea gehiago zabaldu behar da, betiko esparrutik atera. Helburu eta asko ditu, baina ezintasuna.*
- *Ikastetxe arteko banaketa kalean islatzen dira. Euskarak zatitzen ez baditu ere (ikastetxe guztietan D eredia baitago), eskolaz kanpoko harremanak, espazioaren banaketak etabar ezberdinak dira. Gai honi lotuta iritzi anitzak plazaratu dituzte parte hartzaileek:*
 - o *Hala ere, espazio komunak ere badaude.*
 - o *Ez da asmo txarrez eginiko banaketa. Gurasoak seme-alaben lagun taldearen arabera elkartzen dira eta lagun talde horiek ikastetxearen arabekoak dira.*
 - o *Ikastetxeetako gazteen artean hizkuntza bereizketak badaude.*
 - o *Herritarren artean eskola publikoa gaztelerarekin eta ikastola euskararekin lotzen duen pertzepzioa badagoela esan dute, muga psikologikoei loturik.*
 - o *Bereizketa egon badago, baina ez dago hizkuntzarekin lotuta.*
 - o *Azkenik, gehienek adierazi dute eztabaida hau euskara zein Elgoibarko Izarrarekin bat ez datorrela*

- *Ghetto hitza idaztearen arrazoia da Elgoibarko euskara komunitatearen zatitxo bat soilik identifikatzen dela Elgoibarko Izarra elkartearekin. Beraz, euskal komunitate osoarentzat, edo beste zatiarentzat, ez da erreferentzia.*
- *Muga espazialak daude euskal hiztunentzat.*
- *Euskara derrigortasunarekin lotzen bada, ezin da motibatu jendea. Adib: "euskaraz hitz egin behar da". Gauza gustagarriak saldu behar dira. Gazteak edo belaunaldi berriak ez dute euskaraz hitz egingo behartuta.*


Puntu honetan partaideek iritzi ezberdinen elkartrukeari ekin zioten, Osoko Bilkuran, betiere:

- *Seduzitu egin behar da. Plazerrarekin lotu behar da euskara.*
- *Gustagarria den zerbaiten gisa ulertu behar da*
- *Gazteei Elkarteak ez die gauzak aldatuko, euretatik atera behar da aldaketa*
- *Erabilera da gakoa*
- *Adin batetik aurrera, erabaki kontzientea da, hautua.*
- *Erabakia inplizitua izan behar du, ezin da erabaki ideologiko hutsa izan.*
- *Euskaraz bizitzea da erabakia.*
- *Norbanakoaren eremua arakatu behar*
- *Kanpo faktoreek eragina dute erabaki kontziente horretan (erdarazko komunikabideak, etorkinak...). Horregatik, erabakia norberarena izan behar du.*
- *Erronka berezko erabilera izan behar du, naturaltasunez eta zalantzan jarri gabe egiten dena.*
- *Erabaki kontzientea izan behar du, bestela gaur egun gertatzen dena errepikatuko da, erdaldunen aurrean, erdarara jotzen dugula*
- *Eskola da Euskal Herriaren porrotaren arrazoi nagusienetakoa.*

6.- SAIIOAREN BALORAZIOA:

Eguneko azken ordua dela kontutan hartuta, lehenengo saioaren balorazioa posizioen jokoaren bidez egin da, egitekoa arintzeko. Aurreko jolasa egiteko lurtean marrazturiko ilara aprobetxatuz, mutur batean hamarrekoa (10), bestean zeroa (0) eta erdian bostekoa (5) irudikatu dira. Partaideei eskatu zaie balorazioa egiteko, euren hautemateak gidaturik eta honako puntuazioaren arabera: 10ean kokatu oso pozik gelditu badira, 0an jartzeko ez bazaie ezer atsegin izan.

Partaideak azkar hasi dira mugitzen eta guztiak 5etik gora kokatu dira:



Amaitzeko, hurrengo hitzordua gogoratu da: martxoaren 16an, asteazkena, arratsaldeko 18:30tan Elgoibarko Kultur Etxean.

Amaiera, iluntzeko 21:00etan izan da.

Elgoibarren, 2011eko martxoaren 2an.



ELGOIBARKO IZARRA ETA EUSKARA ELGOIBARREN: HAUSNARKETA PARTEKATURAKO TAILERRAK, 2011

Data: 2011-03-16

Tokia: Elgoibarko Kultur Etxean

Parte-hartzaileak: Elgoibarko 14 herritar, Elgoibarko Izarra Elkarteko arduraduna eta Aztiker Ikerguneko 2 teknikari

Iraupena: 18:30 – 21:00

2011-03-16, BILERAREN MEMORIA

1.- EGUNEKO SAIOAREN KOKAPENA

Partehartzaileei harrera egin ondoren, eguneko saioaren helburu zehatzak, egingo diren lan dinamikak eta orduen banaketa azaldu dira. Eguneko saioan sartu aurretik, 1go saioaren memoria eman zaie eskura, azken orduan egindako ekarpenak barnebiltzen dituen. Hala ere, e-postaz bidali zaiela eta bidaliko zaiela ohartarazi da.

2.- EUSKARA ELGOIBARREN. ERRONKAK

Gaiari sarrera eman eta partehartzaile guztiek kokapen berbera izateko, Elgoibarren euskarak, ezagutza eta erabilerari dagokionean, duen egoeraren inguruko datu estatistikoak aurkeztu ditu Aztiker-eko teknikariak. Datu hauek lortzeko iturria Elgoibarko Udala, eta Eusko Jaurlaritzaren soziolinguistika inkesta izan dira. Jarraian aurkezten zaizkizue partehartzaileek datuen ganean egindako iruzkinak:

- *Zer da ia euskalduna izatea?*
- *Datuak oso optimistak dira. Helduen eta adinekoen erabilera altua dela agertzen da eta kalean ez dut horrenbeste sumatzen*
- *Haurren adin tartea zein dela kontsideratzen da estatistika horietan?*
- *Oro har, optimistak dira dautak, datu altuak dira. Euskara gutxi sumatzen da kalean*
- *Haurren erabilera, bai, baina besteena? Bereziki gazteen erabilerak harritu nau.*
- *Gazteen erabilera ez dut sinisten*
- *Nire ustez egia da, nahiz eta erdarakada asko dagoen*
- *Normala da helduen kasuan salto bat egotea, euskara erabiltzen edota ezagutzen ez duten generazio oso bat egotea, guztiek D ereduan ikasi ez zutelako egun helduak direnen artean.*
- *Kuadrillak batzuk oso euskaldunak dira eta beste batzuk oso erdaldunak*

Jarraian, 3 talde osatu dira sugus koloreen arabera, ausaz. Norberaren bizipen zein hautemateak eta Elgoibarren euskarak duen egoeraren aurkezpeneko datuak kontutan hartuta, talde guztiek honako galdera erantzun dute: **Irudikatua Elgoibar 2020.urtean. Nolako euskararen egoera topatu nahi duzu?** Taldeetan fitxa bete ondoren, Osoko bilkuran emaitzak komunean jarri dira. Hona hemen parte hartzaileen erantzunak:

NOLAKO EUSKARAREN EGOERA TOPATU NAHI DUZU ELGOIBARREN?

- Erdaldunak arrotz edo lekuz kanpo sentitzea Elgoibarren.
- Ezagutza eta erabilera behera ez egitea, gutxienez mantentzea eta, ahal izanez gero, erabilera eta ezagutza %5a igotzea
- Euskararen aldeko kontzientzia (esfortzuari lotuta) sortu
- Haurrek euren artean euskaraz hitz egitea (erabilera), %100ean
- Gazteak erabileraren garrantziaz kontziente izatea
- Euskara gaztelera baino gehiago erabiltzea (gutxienez %51ean)
- Gaur egungo haurrak gazte izango direnez, haur zirenean zuten erabilera maila mantentzea. Gaur egungo gazteak heldu izango direnez, gazte zirenean zuten erabilera maila mantendu (%48) edo igotzea. Euskararen transmisioa bermatzea hurrengoek. Laburtuz, adin tartea gainditzean, erabilera mantentzea edo igotzea.
- Egungo helduak adineko izango direnez, elebidun pasiboak izatea (euskaldun hiztunentzat oztopo ez izatea eta errespetatzea)

3.- ATSEDENA

Atsedena bitartean, talde jolasa bat egin da.

4.- ELGOIBARKO IZARRA. ERRONKAK

Elgoibarko Izarra elkartearen erronkak identifikatzeko lan dinamika egin da. Horretarako, 2 lan talde egin dira eta bakoitzari fitxa bat eman zaio bina galdera erantzuteko: ***nolako elkarte behar du Elgoibarrek? Zein izan behar du elkartearen jarduna?*** Lan talde bakoitzak 5 minutu izan ditu fitxa betetzeko. Ondoren, lan talde bakoitzean sortutako edukia Osoko Bilkuran komunean jarri da eta, amaitzeko, edukia osatu da guztien artean, txanda bidez eta ahots altuan.

Hona hemen sortutako edukia:

Irudikatu Elgoibarko Izarra 2016.urtean

NOLAKO ELKARTEA BEHAR DU ELGOIBARREK?

- Kultur gune handi baten parte: bere jarduna eta zerbitzuak mantenduz, beste elkarteekin harremanetan, elkar dinamikatan eta elkar eragitean bide berria egin.
- Herriko beste elkarte eta entitateengan eragina duena (kontuz! Ezer bereganatu gabe!)
- Elgoibarko euskal komunitatearen erreferentea: bai erabilerarako, zein motibaziorako
- Herrian existitzen diren gune erakargarri eta gustagarrietan eragiteko funtzioa diseinatzea (identifikatu eragiteko liderrak, eta kontzienteki planifikatu, zeharka aplikatzeko)
- Gazteen gune gustagarrietan eragingo duena, presiorik gabe, gozamina helburu.

ZEIN IZAN BEHAR DU ELKARTEAREN JARDUNA?

- Ez dauden gune/ekintza gustagarri eta erakargarriak sortzea (bereziki gazteen esparruan, bertako izaera, plazerra eta markarekin).
- Elgoibarko Izarra zer den gazteei ezagutaraztea, formatu erakargarri eta errazean. (gehienek ez dute ezagutzen)

- Ikastola eta Herri eskolako ekitaldiak bateratzen eta koordinatzen laguntzea, herri izaera emateko haur munduari.
- Enpresa munduan eragitea.
- Helduen erabilera bultzatzeko ekimenak, ekitaldiak.
- Gazteei begira ekitaldi erakargarriak (kontzertuak, jaiak...)
- Beste esparruetako eragileekin elkarlanean ekintzak aurrera ateratzea: Udala, hezkuntza esparrua (irakaskuntza eta ez-formala), etorkinen kolektiboak...
- Jardunak komunikatzerakoan ez jartzea "euskara jakitea baldintza gisa, horrek erakarri baina, jendea uxatzen baitu. Baztertzalea ez izatea bere jardunetan.

Sortutako emaitzak errepasatu dira, eta multzo bakoitzeko ekarpenen kohesioa aztertu da ere. Partaideei eskatu zaie hurrengo saiorako koadro honi buruz pentsatzeko, euskararen erronken koadroarekin batera.

5.- OSOKO BILKURA. SAIOAREN BALORAZIOA

Saioarekin amaitzeko, Osoko Bilkuran elkartu eta eguneko saioaren balorazioa egin da. Horretarako, bi galdera erantzun ditu partaide bakoitzak, txanda bidez eta ahots altuan.: **zein ideiarekin zoaz bileratik? Ipini kolore bat bilerari, sumatzen duzun egoeraren arabera.** Jarraian partaideen erantzunak:

- *Ez dut argi nola iritsi (bidea), baina helburua bai. **GORRIA:** gazteak, bidea ilun*
- *Ez dakit. Ideia asko atara dira, orain landu egin behar dira. **BERDEA:** esperantzarik gabe ez ginateke hemen egongo.*
- *Indarra behar dugu, guztiok batera egin. **HORIA:** Orioko arraunlarien indarra beharko dugulako.*
- *Ardura handiegia da Elkarte batentzat, misioa handiegia da. **BERDEA:** esperantza*
- *Ideia asko atara dira, ideia zaparrada, baina misio handiegia. Helburu orokorra ulertu dut, baina bidea? **BERDEA:** esperantzaren kolorea delako*
- *Lanean jarraitu behar da modu guztietara, zuzen eta zeharka. Zuzenean lan egiteak ez du esan nahi kolkotik heltzea. Kolore bat baino gehiago datozkit burura. **GORRIA:** borroka egin behar delako, baina odola isurtzeraino? je,je **TXURIA:** kolore guztien batura delako, elkarteak euskaldun guztiak batu behar ditu. **URDINA:** itsaso zabalaren irudikapen modura.*
- *Lan asko dago egiteko, baina optimista naiz. Potentzialtasun handia du Elgoibarko Izarrak, baina erantzun egin behar da, indarra badu. Guneak bilatu behar dira, ingurua landu behar da. **BERDEA:** optimista*
- *Elkarte bizia da, baina beldurra ematen dit kontrakoa lortzea (los guays...). Kontuz ibili behar gara, ezin dugu jendea behartu, betiko kutsuak alboratu behar dira. Zeharkako eraginean tematu behar dugu. **HORI FOSFORITOA:** bizitza, bizia.*
- *Hasieran **GORRIA** pentsatu dut: lan pila egiteko dagoelako. Gero arriskuaz ohartarazi nahiz; beraz, **LARANJA** utziko dut. Dena den, **BERDEA** ere bai; esperantzaren ikur.*
- *Jende heldua sartzea zaila izango da, baina umeekin lanketa egitea posiblea da. **GRIS ARGIA:** kolorea hartzen ari delako.*
- *Bidea zeharka egin behar da, adibidez, Pirritx eta Porrotxek egiten dutena. Haurrak (eta gurasoak) erakartzen dituzte, baina ez bakarrik barrea eragiteagatik: interesa pizten dute, ondo pasarazten dizute, hezi egiten dute... Eta azkenean, erabakia norberarena bilakatzen da. **TXURIA:** neutrala. Lehenengo materiala behar da, behetik hasi behar da.*
- *Gauza asko atara dira, lan pila dago egiteko. Betikoaz aspertua nago; beraz, gogoz helduko diot erronkari. **MARRUBIA:** gustatzen zaidalako, goxoa delako.*

- *Betikoa egin behar du elkarteak, baina parte hartzea dinamikoagoa behar du izan. "Si Mahoma no va al monte, el monte va a Mahoma" esaldia oso esanguratsua da kasu honetan. **BERDEA**: esperantza*

6.- HURRENGO SAIOAREN KOKAPENA ETA AMAIERA

Amaitzeko, hurrengo hitzordua gogoratu da: martxoaren 30an, asteazkena, arratsaldeko 18:30tan Elgoibarko Kultur Etxean.

Amaiera, iluntzeko 21:00etan izan da.

Elgoibarren, 2011eko martxoaren 16an.



ELGOIBARKO IZARRA ETA EUSKARA ELGOIBARREN: HAUSNARKETA PARTEKATURAKO TAILERRAK, 2011

Data: 2011-03-30

Tokia: Elgoibarko Kultur Etxean

Parte-hartzaileak: Elgoibarko 13 herritar, Elgoibarko Izarra Elkarteko arduraduna eta Aztiker Ikerguneko 2 teknikari

Iraupena: 18:30 – 20:30

2011-03-30, BILERAREN MEMORIA

1.- EGUNEKO SAIOAREN KOKAPENA

Partehartzaileei harrera egin ondoren, eguneko saioaren helburu zehatzak, egingo diren lan dinamikak eta orduen banaketa azaldu dira. Era berean, 2.saioaren memoria banatu zaie eskura eta e-postaz bidaliko zaiela jakinarazi da. Saioak iraun bitartean papelografo batean helburuak ikusgai egon dira:

ELGOIBARKO IZARRA ELKARTEA

3.saioaren helburuak:

- 1) Elgoibarko Izarra Elkartearen erronken errepaso
- 2) Erronken berformulazioa eta berkokapena
- 3) Egun elkarteak dituen ekimen eta zerbitzuak etorkizunera begira baloratzea

2.- ELGOIBARKO IZARRA ELKARTEA. ERRONKAK

Elgoibarko Izarra Elkartearen erronkak lantzeko, 3 lan dinamika egin dira, partehartzaileek erronken gainean duten ikuspegi osoa, gertukoa eta erreala hautemateko. Aurreko saioan euskarak Elgoibarren dituen erronkak aztertu ziren (orokorrean). Gaurko eguneko saioan Elgoibarko Izarra Elkarteak dituen erronkak sakonean lantzea izan da lehen egitekoa (zehatzean).

Lehenik eta behin, **Elgoibarko Izarra Elkarte zertarako den beharrezkoa** landu da, partehartzaileen iritzia eta hautemateetatik abiatuz. Horretarako, banaka jarrita eta postit batean, honako galderari erantzun diote 5 minututan: *Zertarako Elgoibarko Izarra Elkarte?*. Osoko Bilkuran emaitzak komunean jarri dira, txandaren bidez eta ahots altuan.

Hona hemen sortutako edukia:

ZERTARAKO ELGOIBARKO IZARRA ELKARTEA?
<ul style="list-style-type: none"> • Euskararen erabilera indar gehiagorekin bultzatzeko, ez norbanakoak soilik • Euskara kontagiatzeko. Euskarara erakartzeko • Euskararen erabilera bultzatzeko • Herrian euskararen erabileraren bultzatzailea • Herrian euskarari falta zaion bultzada emateko • Funtsean, euskara hartu eta kultura etabar luze batean lan egiteko • Elgoibar euskalduntzeko • Elgoibar euskaldunduz joateko • Euskal kultura Elgoibarren indartzeko • Euskara bermatzeko • Euskara mantentzeko • Euskararen inguru guztia antolatzen.

Sortutako emaitzak errepasatu dira, eta multzo bakoitzeko ekarpenen kohesioa aztertu da ere.

Bigarren lan dinamikaren helburua **partehartzaileek sorturiko emaitzetatik erronkak eta eman beharreko lehen urratsak definitzen hastea** da. Horretarako oinarrizko edukia, 2.saioan parte hartzaileek sorturikoa izan da: lehen zatia (*nolako Elkarte behar du Elgoibarrek?* galderaren erantzunak erronka gisa aurkeztu dira da eta bigarrena (*zein izan behar da Elkartearen jarduna?* galderatik eratorritakoak sailkatu gabe utzi dira. Osoko Bilkuran eta ahots altuan, erronkak berretsi edo birkokatu dira eta sailkatu gabe daudenak kokatu dira.

Jarraian, lan dinamika honetatik sorturiko edukia (**negritaz**, aurrez sorturiko edukia; normal, partehartzaileek kokatu edo birdefinituriko edukia):

ELGOIBARKO IZARRA ELKARTEA	
ERRONKAK	LEHEN URRATSAK
<p>2) ERREFERENTZIA. Elgoibarko euskal komunitatearen erreferentzia: erabilera + mobilizazioa</p>	
<p>3) ERAGITEKO FUNTZIOA, ELKARTE ETA GUNEETAN. Batetik, herriko beste elkarte eta entitateengan eragina duena (bereganatu gabe). Bestetik, herrian existitzen diren gune erakargarri eta gustagarrietan eragiteko funtzioa. Hiru dimentsio:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Modu kontzientean • Zeharka • Mixtoa: kontziente planifikatu, zeharka aplikatu, erabakia kontzientea 	<ul style="list-style-type: none"> - Kultura maila, Ikastola eta Herri Eskolaren arteko ekintzak koordinatu edo bateratzen laguntzea. Proposamena bi zuzendaritzetara helaraztea - Enpresa-merkataritzan eragin - Helduei begirako ekimenak bultzatu - Beste eragileekin elkarlana: ekintza, zerbitzuak...
<p>4) GAZTEAK. Gazteen gune gustagarrietan eragingo duena, gozamina helburu.</p> <ul style="list-style-type: none"> • GAZTEENGAN ERAGIN (<i>birformulazioa</i>) 	<ul style="list-style-type: none"> - Gazteei begirako ekintza erakargarriak (jaiak, kontzertuak...) - Elkarte ezagutarazi
<p>5) OROKORREAN (ZEHATZERA JO BEHAR)</p>	
<p>6) ENPRESA/ MERKATARITZAN ERAGIN</p>	
<p>7) HELDUAK</p>	

Komunikazio irizpideei, edo barne jarduerari, loturiko zehaztapen gisa kokatu dute honakoa: Baztertzaila ez izatea bere jardueratan. (Adib: "euskara jakitea baldintza gisa" bezalako aurre baldintzak etorkizunean ekiditea). Erronka edota lehen urrats gisa alboratu egin da. Partehartzaile ugari aipatu dute berau barne arautegian edo estatutuetan txertatu beharrekoa dela.

Bestalde, honako zalantzak sortu dira elementua non kokatu edo Elkartearen zeregina denaren inguruan:

- Ikastola/ Herri Eskolaren arteko koordinazioan laguntzea. Sorturiko zalantza: Elgoibarko Izarraren zeregina da?
- Helduengan eragin. Sorturiko zalantza: erronka edo urratsa da? (bi kasuetan kokatu da)
- Enpresa munduan eragin. Zalantza honakoa izan da: erronka edo urratsa da? (bi kasuetan kokatu da)

Azkenik, **erronka bakoitzaren baitan eman beharreko lehen urratsak eta proposamenak identifikatu dira**. Partehartzaileak izaeraren arabera 3 lan taldeetan banatu dira (gazteak, helduak, adinekoak) eta 15 minutuz lan talde bakoitzak bi erronken gaineko lanketan jardun du. Ondoren, Osoko Bilkuran, ahots altuan eta txandaren bidez, edukia komunean jarri da.

Jarraian aurkituko duzuen da sorturiko edukia (**negritaz**, aurrez kokaturiko edukia; normal, lan dinamikaren bidez partehartzaileek sorturikoa):

ELGOIBARKO IZARRA ELKARTEA

ERRONKAK	LEHEN URRATSAK	PROPOSAMENAK
<p>1) ERREFERENTZIA. Elgoibarko eskal komunitatearen erreferentzia: erabilera + mobilizazioa</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Euskal komunitateko jendea non dagoen kokatu eta kokapenaren araberako ekintza zuzenak pentsatu: <ul style="list-style-type: none"> i. Euskal komunitatearen mapa kokatzea ii. Euskaldun berri-zahar dikotomia ezabatzea 	<ul style="list-style-type: none"> - AISIA-KIROLA: <ul style="list-style-type: none"> i. Entrenatzaileak euskaldunak izatea ii. Hezitzaile euskaldunak - ETXEA-TRANSMISIOA: <ul style="list-style-type: none"> i. Komunikazio kanpaina horren alde. - IRAKASKUNTZA-ERABILERA
<p>2) ERAGITEKO FUNTZIOA, ELKARTE ETA GUNEETAN. Batetik, herriko beste elkarte eta entitateengan eragina duena (bereganatu gabe). Bestetik, herrian existitzen diren gune erakargarri eta gustagarrietan eragiteko funtzioa. Hiru dimentsio:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Modu kontzientean • Zeharka • Mixtoa: kontzienteki planifikatu, zeharka aplikatu, erabaki kontzientea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Ikastola-Herri Eskolaren arteko koordinazioa eta ekintza bateratzeko lanean laguntzea - Enpresan eta merkataritzan eragitea - Helduen erabileran eragitea - Beste eragileekin elkarlana egitea (ekintzak, zerbitzuak...) i. Elkarteen mapa egitea ii. Lehenasunezkoak kokatzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Bi zuzendaritzei proposatzea egutegiak bateratzea - "Gurean bai" bezalako ekimenak berriro martxan ipini - ENPRESATAN "Gurean bai" berezia, gutxienez hizkuntza paisala eragiteko - ELKARTE GASTRONOMIKOAK: <ul style="list-style-type: none"> i. Kanpainaren bat zuzendu ii. Batera zer bait antolatu (bakailu lehiaketa) - ELKARTE guztiekin elkarlana: eskutitz bidez, zerbitzuak eskaini (hizkuntza paisala euskaldundu)...
<p>3) GAZTEAK. Gazteen gune gustagarrietan eragingo duena, gozamena helburu.</p> <p>GAZTEENGAN ERAGIN (berformulazioa)</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Gazteei begirako ekintza erakargarriak egitea (jaiak, kontzertuak...) - Elkarte ezagutaraztea - 18-30 urte tartea kontutan hartu, ahalegin berezia egin. 	<ul style="list-style-type: none"> - EGOITZA ikusgarri jarri: merkataritza lokala, erakuslelhoa... Erdialdean - KAFE ANTZOKIA kudeatzea: ekintza kulturak - TABERNATAN 21atik 22tara kantak euskaraz - LOKALEN arteko herri-kirol txapelketa - MARIHUANAREN inguruko Jardunaldiak - MARIHUANAREN GIDA euskaraz egitea.
<p>4) ENPRESA MUNDUAN ERAGIN</p>		
<p>5) HELDUENGAN ERAGIN</p>		

3.- EGUN ELGOIBARKO IZARRA ELKARTEAK DITUEN ZERBITZU ETA EKIMENAK. BALORAZIOA.

Azkenik, egun (edo duela gutxira arte) Elgoibarko Izarra Elkartek eskaintzen dituen zerbitzu, ekimen nahiz ekitaldiak baloratu dira, partehartzaileek aurrez zehazturiko erronkekin harremanetan jarri.



Partehartzaile guztien abiapuntua parekoa izateko, Elkartek egiten duen eskaintzaren (zerbitzuak, ekimenak edota ekitaldiak) deskribapen fitxa banatu zaie, inolako baloraziorik gabekoa.

Osoko Bilkuran, txandaren bidez eta ahots altuan, zerbitzu, ekimen edo ekitaldi bakoitza erronka bat(zu)ekin harremanetan jarri da. Lan dinamikarekin amaitzeko, Elkartearen eguneko eskaintza baloratu da. Horretarako, kolore ezberdinetako gometxak itsatsi ditu partehartzaile bakoitzak eskaintza bakoitzaren gainean:

- **GORRIA:** desagertu beharreko ekimen, zerbitzu edo ekitaldia
- **BERDEA:** mantentzeko ekimen, zerbitzu edo ekitaldia
- **HORIA:** egokitu beharreko ekimen, zerbitzu edo ekitaldia

Jarraian, egindako lan dinamikaren emaitzak:




ELGOIBARKO IZARRA ELKARTEA			
ZERBITZU, EKIMEN, EKITALDI...	ERRONKA	BALORAZIOA	
HAURRAK ETA GAZTEAK	ATXUTIAMAIKA	<ul style="list-style-type: none"> Eragiteko funtzioa, haurrengan Euskal komunitatearen erreferentzia 	
	KIRIBIL	<ul style="list-style-type: none"> Eragite funtzioa, haur/gurasoengan?? Euskal komunitatearen erreferentzia 	
	BERBAZULO	<ul style="list-style-type: none"> Ezagutza eta erabileran eragin, hau eta nerabeengan 	
	KUADRILATEGI (bertan behera)	<ul style="list-style-type: none"> Gazteen erabileran eragin 	
HEDABIDE SAILA	UDAL EKIPAMENDUAK: ludoteka eta gaztelekuak	<ul style="list-style-type: none"> Elkartearen finantziakzioa Aisialdi eskaintzan eragitea 	
	BARREN astekaria	<ul style="list-style-type: none"> Elgoibarko herriaren erreferentzia Ekintzen komunikazioa 	
	Elgoibarren.net atari digitala	<ul style="list-style-type: none"> Elgoibarko herriaren erreferentzia Ekintzen komunikazioa Herritik kanpo egonik, oso baliagarria 	
	GOTZON GARATEREN OMENEZ	<ul style="list-style-type: none"> Erreferentzia 	
KULTURGINTZA	SANTA AGEDA ESKEA	<ul style="list-style-type: none"> Erreferentzia 	
	GABONETAKO BERTSO JAIALDIA	<ul style="list-style-type: none"> Erreferentzia (erlatiboa) 	
	GUREAN BAI-ELKARTEAK (bertan behera)	<ul style="list-style-type: none"> Eragitea elkarrengan 	
GUREAN BAI (hitzarmena)	GUREAN BAI-MERKATARITZA (bertan behera)	<ul style="list-style-type: none"> Eragitea merkataritza eta hostalaritza 	

BESTELAKOA K	TERTULIAK PROGRAMA	• Erabilera eta ezagutza eragitea	
	NAZIO MAILAKOAK (KMK, Ibilaldia...)	• Gazteengan eragitea	

4.- BALORAZIOA. OSOKO BILKURA

Amaitzeko, eguneko saioaren eta hausnarketa partekaturako tailerren balorazioa egin da.

Lehenik eta behin, "Elgoibarko Izarra eta Euskara Elgoibarren: hausnarketa partekaturako tailerrak, 2011" prozesu parte hartzailea baloratu da. Horretarako, partaideei fitxa bat eman eta honako hiru esparruak baloratu dituzte: partaideen arteko giroa, sortutako edukia eta lan egiteko modua. Bakarka jarrita, partehartzaile bakoitzak fitxa bete eta entregatu da.

			
PARTAIDEEN ARTEKO GIROA	x13	--	--
SORTUTAKO EDUKIA	x 8	X 5	--
LAN EGITEKO MODUA	x 10	X 3	--

Ondoren, eguneko saioa baloratzeko ariketa egin da. Osoko Bilkuran, ahots altuan eta txandaren bidez, partehartzaileek honako galdera erantzun dute: *zein da azpimarratu nahi duzun ideia etorkizunerako?* edo, beste era batera esanda, *Zein ideiarekin gelditzen zara?* Erantzunarekin batera, eguneko saioa hitz baten bidez kalifikatu dute.

Jarraian aurkezten direnak izan dira jasotako erantzunak:

- *Positiboa. Egiten diren gauzak ondo baloratuak daude, nahiz eta hobetu behar diren. HAUSNARKETARAKO EGOKIA*
- *Egindakoak asko eta ondo eginak dira. Aurrera begira egin daitezkeen ideia edo proposamen asko jaso dira. DINAMIKOA*
- *"Oinak lurtean, eskuak zeruan" esaerak ondo adierazten du. MOTZA*
- *Gauzak egiten direla ikusten da. Etorkizunean pentsarazi dit. INTERESGARRIA.*
- *Asuntoa ez da egiten dena gaizki dagoela, baizik eta dauden hutsuneak betetzeko beste zerbait gehiago egin behar dela. BALIAGARRIA.*
- *Gustura egon naiz. Ez dakit aportatu dudana, baina elkarteak ikasi dut eta gustatu zait. ONA.*
- *Mugitua, barre egin dut. Gauzak atera dira eta ideia berriak ere bai. ANTOLAMENDUA OSO ONA*
- *Iritzia eman dugu, baina zerbait berria espero nuen, koska non dagoen argitzea. Atera diren ideietatik, beste bide batetik lortu daiteke. ONDO BIDERATUA, GIRO ATSEGINA.*
- *Iritzi ezberdinak entzutea beti da ona, batez ere gazteena. METODOLOGIA ATSEGINA*
- *Gaurko saioan gauza zehatzagoak, baloraziorako gauza zehatzagoak, landu dira, hobeto. GUSTURA*
- *Ez nuen ezer berririk espero. Ez dakit nola izango den erabilgarria. Nahastua ibili naiz erronka eta lehen urratsak bereizten. Balorazio ona. INTENTSUA*
- *Ni ere nahastuta (je,je). Ekintzak mantendu behar dira, puntada batzuk emanda kitto! Egun egiten diren ekimenak baliagarriak dira. ERAMANGARRIA, GUSTURA*
- *Eskerrak guztioi etortzeagatik eta lanerako izandako prestutasun zein jarreragatik. Sorturiko edukia baliagarria izango da Elkartearentzat eta euskararentzat.*

5.- AMAIERA ETA AGURRA

Hausnarketa partekaturako tailerren azken saioa izanik, prozesuaren amaiera kokatu da eta 3.saioaren memoria be-postaz jasoko dutela ohartarazi. Amaitzeko, Elgoibarko Izarra Elkarteko arduradunak eskerrak eman eta sortutako edukia Elkartek hurrengo urtean egingo duen barne-hausnarketarako baliagarria izango dela adierazi du. Partehartzaileen prestutasuna, lanerako jarrera eta gogoak azpimarratu dira.

Hausnarketa partekaturako tailerren emaitza Txosten batean bilduko da eta Elgoibarko Izarra Elkartearen esku utziko da.

Amaiera, iluntzeko 20:30etan izan da.

Elgoibarren, 2011eko martxoaren 30an.

[a]
aztiker

Jendarte-ikerketa aplikatuak

Martin Ugalde Kultur Parkea, Gudarien Etorbidea z/g

20140 ANDOAIN [GIPUZKOA]

943 59 30 06 / 608 018 512

idazkaritza@aztiker.com